



EAE-KO INGURUMEN PROFILA 2010



Herri-baltzua
Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAIA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA



ARGITARALDIA:
Noviembre 2011

ARGITARATZAILEA:
Ihobe Ingurumenaren Kudeaketarako Sozietate Publikoak
Urkixo zumarkalea, 36 Zk - 6. solairua, 48011 - BILBO
Tel.: 94 423 07 43 • Fax: 94 423 59 00
info@ihobe.net • www.ihobe.net

EDUKIA:
Dokumentu hau prestatzeko, UTE NAIDER-IDOM enpresaren laguntza jaso dugu.

DISEINUA:
Laluca Comunicación

ITZULPENA:
Maramara Taldea

LEGE GORDAILUA:
XXXXXXXXXX



Liburu honen edukiak, oraingo edizioan, litzentzia honetan argitaratu dira: Aitortu – Ez merkataritzarako – Lan eratorririk gabe 3.0 Unported (informazio gehiago <http://creativecommons.org/licenses/by-ncnd/3.0/deed.eu>)
Txosten hau egiteko, % 100ean birziklatutako papera erabili da, klororik gabea. Erabilitako paperak egiaztagiri hauek ditu: Aingeru Urdina, Europako Iparraldeko Beltxarga eta Europako Etiketa Ekologikoa.





Jarraian, EAEko Ingurumen Profila 2010 aurkeztu behar dugu 2008ko Ingurumen Urtekariaren eta 2009ko Euskadiko Ingurumen Profilaren Ingurumen Adierazleen jarraipen gisa, eta 2007-2010 aldiko EAEko II. Ingurumen Esparru Programaren (II. IEP) barruan.

Profil honen bidez II. IEPren azken fasea bukatzen da, bere helburuak eta konpromisoak betetzean egindako aurrerapenen bilketa eta ebaluazioa jasotzen baititu. Agiri honetan, plan honen berrikuspina eta azken ebaluazioa egoteaz gain, 2011-2014 aldiko EAEko III. Ingurumen Esparru Programarako hartutako konpromiso berriak ere zehaztuta daude; halaber, zeharkako lan ildoak da

Euskadi Jasangarriaren aldeko gure apustua gauzatzeko beharrezko elementuak egituratzen dituen, Euskadiko Garapen Jasangarrirako Estrategiaren (EkoEuskadi2020) ingurumen helburuak lotzen eta garatzen baititu.

Agiri hau hobetu da aurreko edizioen aldean (datu homogeneoen serie historikoak, EAEko, Espainiako eta Europar Batasuneko baloreen arteko konparazio orokorrak, eta txostenak egiteko nazioarteko estandarren arabera irizpideak pixkanaka eranstea). Gainera, 2007-2010 aldiaren azken adierazleak ere aztertu ditugu, eta II. IEPren emaitzaren balorazio sintetikoa egin dugu hartutako konpromisoen betetze mailaren arabera. Halaber, emaitzak modu grafikoagoan aurkeztu ditugu azkar eta intuitiboki ikusi ahal izateko. Azkenik, III. IEPren helburuak eta ildo orokorrak ere aipatu ditugu, ingurumen plangintza berriaren ikuspegi aldaketa azalduta (datozen lau urteetan indarrean egongo da).

2009an gertatu bezala, mundu osoko ekonomia eta finantza krisiak EAEko ingurumenaren egoeraren bilakaeran eragin du. Aurkeztutako emaitzek, berriro ere, Autonomia Erkidegoan arnasten dugun airearen kalitatea hobera nabarmen egin duela erakusten dute. Era berean, berotegi efektuko gasen isurien joera positiboari ere eutsi zaio; eta joera positibo honi esker, aukera bikaina dugu 2012rako dugun helburua betetzeko. Joera positibo hori, gainera, ur kalitatearen eta luraren kutsadura prebenitu eta zuzentzeko adierazleetan ere ikus daiteke.

Hurrengo plangintza ziklorako (III. IEP, 2011-2014 aldi indarrean) funtsezko erronken artean, berriz, aire kalitateari, berotegi efektuko gasen isuritari, ur kalitateari eta lur kalitateari dagokienez aipatutako bide onari eutsi behar diogu. Baina lurzoru artifizializazioari, bioaniztasunari eta baliabide erabilerean eraginkortasunari buruzko adierazleak ere balio positiboetara eramane behar ditugu.

Hala bada, 2011-2014 aldiko III. IEPko lehentasunezko sei ingurumen erronkak hauexek dira: klima aldaketa arintzea eta egokitzea; bioaniztasuna zaintzea eta artifizializazioa mugatzea: baliabideak erabiltzean produktibitatea handitzea (ekoeraginkortasuna, ekodiseinua, ekoberrikuntza, ekoizpen jarduera desmaterializatzea, birziklatzea eta berrerabiltzea) eta kontsumo arduratsua; ingurua garbi eta osasungarri mantentzea (airearen, ur masen eta lurzoruen kalitate indize ona lortzea; alegia); arlokako plangintza prozesuetan koordinazioa eta jarraipena egitea, eta ekonomiako, zientziako, teknologiko eta gizartearen eragilearen erantzunkidetasuna ingurumena kudeatzeko orduan.

2011n aipatutako sei helburu estrategikoak garatzeko jarduerak ildoak lantzen ari gara, eta emaitzak hurrengo Ingurumen Profilean jasoko dira.

Plangintza ziklo berri honetan, ingurumen kudeaketaren ikuspegi integratzailea funtsezko elementua da. Ingurumen politika hauetan ere txertatu behar da: energian, garraioan, hidrológicoan, lurralde antolaketan, industrian, eta abarretan. Erakunde eta eragile guztiek helburu honetan lan egin behar dugu, berau, zalantzarik gabe, eraginkorra baita Euskadi jasangarriago baterantz hurbiltzeko.

Pilar Unzalu Pérez de Eulate

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburua

1. SARRERA	6
2. HELBURU ESTRATEGIKOEN EBALUAZIOA	9
2.1 Airearen kalitatea	10
2.2 Uraren kalitate ona	16
2.3 Lurzoruaren kutsadura prebenitzea eta kutsatutakoa garbitzea	22
2.4 Baliabide naturalen kontsumo arduratsua	26
2.5 Energia kontsumo eta ekoizpen jasangarria sustatzea	28
2.6 Hondakinak murriztea eta tratatu gabeko zero isuri	32
2.7 Gure aniztasun biologikoari eustea	38
2.8 Mugikortasuna kudeatzeko eredu berri baterantz joatea	46
2.9 Lurraldearen erabilpen orekatua lortzea	50
2.10 Berotegi efektuko gas isurpenak mugatzea	54
2.11 Klima aldaketara egokitzea	58
3. JASANGARRITASUNERAKO BEHAR DIREN BALDINTZAK LORTZEKO BIDEAN AURRERA	62
3.1 Ingurumen aldagaia beste politiketan integratzea	64
3.2 Indarrean dagoen araudia eta horren aplikazioa hobetzea	67
3.3 Merkaturia ingurumenaren mesedetan erabiltzea	68
3.4 Herritarrak gaitzea eta ardura partekatzea	69
3.5 Ingurumenaren arloan ikerketa, garapena eta berrikuntza bultzatzea	70
3.6 Nazioarteko ingurumen lankidetzatza	71
4. ONDORIOAK ETA JOERAK. 2007-2010 ALDIAREN AMAIERA ETA 2011-2014 ALDI BERRIAREN HASIERA	72
4.1 Emaizten ebaluazioa	73
4.1.1 Ebaluazio globala helburu estrategikoen eta beharrezko baldintzen arabera	73
4.1.2 Konpromisoen araberako ebaluazio globala	77
4.2 Ingurumen Esparru Programa berriaren helburu estrategikoak	78
1. ERANSKINA: KONTSULTATUTAKO INFORMAZIO ITURRIAK	81

1. SARRERA

1. Sarrera

EAEko 2010eko Ingurumen Profilak 2007-2010 aldirako II. IEPn hartutako **11 helburu estrategikoak eta 44 konpromisoak** aztertzen ditu, baita ingurumena planifikatzeko agiri horretan jasotako jasangarritasuneko beharrezko 6 baldintzak ere.

Edizio honen bidez 2007-2010 aldirako II. Ingurumen Esparru Programak ezarritako ingurumen plangintzako zikloa amaitzen da. Zikloaren amaierara iristean, plangintzaren aldi osoaren (2007-2010) emaitza globalak erakuts ditzakegu.

Era horretan, helburu estrategikoen, konpromisoen eta beharrezko baldintzen analisia honela egongo da egituratuta:

Lehenik, eskema honi jarraiki, helburu estrategikoak aztertuko dira.

Helburu estrategiko bakoitzaren aurkezpen grafikoa dago, lotutako konpromisoak barne, eta programaren aldiko adierazlearen joera eta helburu kuantitatiboaren betetze maila ikurren bidez adierazita daude.

Konpromiso bakoitzean, eta Ingurumen Esparru Programaren indarraldian (2007-2010) izandako urteko balio kuantitatiboak eta joera aztertu dira; baita informazio kuantitatiboa dagoen azken urteko bilakaera eta aldirako ezarritako helburu kuantitatiboa bete den ere.

Espainiako eta Europar Batasuneko jarraipen adierazleen balioak ere ageri dira, adierazle bakoitza EAEko egoerarekin alderatu ahal izateko erreferentzia gisa.

Azkenik, helburu estrategiko bakoitzarekin lotutako konpromiso guztiak aztertuta-azaldutako eskemari jarraiki betiere-aipatutako helburu estrategikoarekin lotuta urtean garatutako jarduera nagusiak azaltzen dira.

Ondoren, beharrezko baldintzak aztertuta daude. Hala ere, helburu kuantitatiboak lotuta ez dituztenez, azken ekitaldiko aurrerapen nabarmenak azaltzen dira, eta 2007-2010 zikloaren balorazioa jasota dago.

Bukatzeko, 2007-2010 aldirako II. IEPren konpromisoak eta helburuak baloratzeko azken dokumentua denez, EAEko 2010eko Ingurumen Profil honetan 2007-2010 aldirako plangintza zikloaren ondorioak jasota daude (atal honetan programa osoa baloratzen da), eta 2011-2014 aldirako ziklo berriaren sarrera laburra ere bai.


Adierazleen joeraren aurkezpen grafikoari eutsi diogu, eta berarekin batera beste irudikapen grafiko batean 2010eko konpromisoa lortu den edo ez azaldu dugu. Adierazleen joera irudikatzeko, gainera, koloretako geziak erabili ditugu. Konpromisoaren betetze maila koloretako aurpegien bidez ikus daiteke.

1. Sarrera

Adierazleen joeraren aurkezpen grafikoa




JOERA POSITIBOA DA



EZ DAGO JOERA ARGIRIK
(zenbait aurrerapen egin dira, baina ez nahikoak, edota joera gurutzatuak daude)



JOERA NEGATIBOA DA



EZ DAGO KONPROMISOAREKIN LOTURIKO NAHIKOA DATURIK EDO DATU ESANGURATSURIK

2010eko konpromisoak lortzearen aurkezpen grafikoa



BETETZE MAILA HANDIA DUTEN KONPROMISOAK



BETETZE MAILA PARTZIALA DUTEN KONPROMISOAK



BETETZE MAILA NAHIKORIK EZ DUTEN KONPROMISOAK



EZ DUGU DATURIK BETETZE MAILA BALORATU AHAL IZATEKO

Adierazleetan erakutsitako datuak ez dagozkio beti indarreko programaren indarraldiari. Datuak batzuetan aztertutako aldiaren aurreko egunei dagozkie, adierazleak prestatzeko informazio bilketaren baldintza bereziak direla-eta. Eskuragarri dauden azken bost urteotako datuak jasotzen saiatu gara, irakurtzea eta interpretatzea errazagoa izan dadin.

Ingurumen profil honetan aurkeztutako adierazleak lortzeko, neurri handi batean, Estatistikaren Euskal Planari buruzko Legean jasotako hainbat estatistika ofizial erabili dira. Adierazle guztien datuak Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren estatistika ofizialaren atalean eskuragarri daude, hemen: www.ingurumena.net

1. Sarrera

Gainera, adierazle batzuk informazio zabal eta zehatzagoa eskaintzen duten aplikazioei lotuta daude.

Airearen kalitateari buruzko datuak Airearen Kalitate Sarean eskuragarri daude; bertan sartzeko sailaren web orriaren (www.ingurumena.net) ingurumen atalaren aire eta zarata atalera jo behar dugu.

Artifizializazioari buruzko datuak Udalplan on-line aplikazioan eskuragarri daude, bertan sartzeko sailaren web orriaren (www.ingurumena.net) Lurralde Plangintza atalera jo behar dugu.

Edizio honetan, helburu zenbagarria duten konpromisoei dagokienez, adierazleen bilakaeraren irudikapen grafikoan 2010. urterako helburu zehatza horizontalean ageri da. Era horretan, 2010erako finkatutako konpromisoak bete diren azkar ikusiko dugu.

2. HELBURU ESTRATEGIKOEN EBALUAZIOA

2.1 Airearen kalitatea

2.2 Uraren kalitate ona

2.3 Lurzoruaren kutsadura prebenitzea eta kutsatutakoa garbitzea

2.4 Baliabide naturalen kontsumo arduratsua

2.5 Energia kontsumo eta ekoizpen jasangarria sustatzea

2.6 Hondakinak murriztea eta tratatu gabeko zero isuri

2.7 Gure aniztasun biologikoari eustea

2.8 Mugikortasuna kudeatzeko eredu berri baterantz joatea

2.9 Lurraldearen erabilpen orekatua lortzea

2.10 Berotegi efektuko gas isurpenak mugatzea

2.11 Klima aldaketara egokitzea

2.1 Airearen kalitatea

	1. HELBURUA AIREAREN KALITATEA	JOERA	2010ERA KO HELBURUA
			
"Lurralde guztian airearen kalitatea hobetzea, herritarren osasunean eta bizi kalitatean duen eragina dela-eta. Arreta berezia emango zaio herriguneetan."			
1. konpromisoa: AIREAREN KALITATEA	Kalitate oneko eta onargarriko airearen indizea % 95 baino gehiago izatea; eta kalitate txarreko, oso txarreko eta arriskutsuko indizeak % 1 baino txikiagoak izatea. Kalitate txarreko, oso txarreko eta arriskutsuko airea arnasten duten herritarren kopurua % 20 murriztea 2006. urtearekin alderatuta.		
2. konpromisoa: PM₁₀ PARTIKULAK	Airearen kalitateari buruzko jarduera planak egitea beharrezkoa den eremuetan urteko batez besteko partikula kontzentrazioa gutxienez % 10 murriztea.		
3. konpromisoa: PM_{2,5}	Sareko estazioetan, Europar Batasunak zehaztuko duen PM _{2,5} -en urteko muga balioa ez gainditzea lortzea.		
4. konpromisoa: KUTSATZAILEEN ISURKETAK	NO _x , SO ₂ eta konposatu organiko lurrunkorren isurpenak hurrengo ehunekoetan murriztea, oinarritzat 1990eko datuak hartuta: NO _x : -% 31, SO ₂ : -% 64, konposatu organiko lurrunkorrek: -% 58.		
5. konpromisoa: ZARATA	Osasunaren Mundu Erakundeak aglomerazio handietarako gomendatutako mugak gainditzen dituzten zarata mailak jasaten dituzten herritarren kopurua % 10 murriztea 2006. urtearekin alderatuta.		

Airearen kalitateari buruzko konpromisoak neurtzeko zuzeneko sistemetan oinarritutako adierazleak erabili ditugu, horrek datuak azkar lortzea eta ondoren prozesatzea ahalbidetzen baititu.

1. konpromisoa: AIREAREN KALITATEA


"Kalitate oneko eta onargarriko airearen indizea % 95 baino gehiago izatea; eta kalitate txarreko, oso txarreko eta arriskutsuko kategoriak % 1 baino txikiagoak izatea. Kalitate txarreko, oso txarreko edota arriskutsuko airea arnasten duten herritarren kopurua % 20 murriztea 2006. urtearekin alderatuta."

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: HANDIA ★ ★ ★

2007-2010 aldian airearen kalitateari buruzko adierazleak joera positiboa izan zuen, eta airearen kalitatea hobetzeko joerari eutsi zion finkatutako hiru adierazle kuantitatibotan. Gainera, adierazle bakoitzean jasotako helburu kuantitatiboak nabarmen bete dira.

Aire kalitate ona edo onargarria izan duten egunen ehunekoak oso handiak izan dira, eta balioak urtez urte hobetu dira (2009an izan ezik, adierazlea 2008ko balioan mantendu baitzen). 2010ean egunen % 99,13tan kalitate maila ona edo onargarria egon zen, ezarritako helburu kuantitatiboa ehuneko 4 puntu baino gehixeagotan gaindituta hortaz (% 95).

2.1 Airearen kalitatea



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

Airearen kalitate "txarra", "oso txarra" eta "arriskutsua" adierazlearen bilakaera ere biziki positiboa izan zen; hala, 2007ko % 1,5etik 2010eko % 0,87ra igaro zen, eta aldiaren amaieran % 1etik beherakoak izateko helburua bete zen.

Aire kalitate txarra, oso txarra edo arriskutsua arnasten duten herritarren ehunekoaren adierazleak ere joera positiboari eutsi zion; hala, aldiaren amaieran % 0,6koa zen, eta 2006ko datuekin alderatuta % 20 murrizteko helburua gainditu zen (% 71).

2010ean lortutako balioek 2009koak hobetu zituzten aipatutako hiru adierazleetan.

Gaur egun, hiriguneetan airearen kalitatea kutsatzeko iturri nagusia ibilgailuen gehiegizko erabilera izaten da. Aire kalitate txikia dagoenean, gehienbat, PM₁₀ (partikulak), NO_x (nitrogeno oxidoak) eta Konposatu Organiko Lurrunkorren¹ balio handiak egoten dira.

2. konpromisoa: PM₁₀ PARTIKULAK²

"Airearen kalitateari buruzko jarduera planak egitea beharrezkoa den eremuetan urteko batez besteko partikula kontzentrazioa gutxienez % 10 murriztea"³.

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: HANDIA ★ ★ ★

2007-2010 aldian PM₁₀ partikulen kontzentrazioak beheranzko joera izan zuen, eta 2010eko balioak ezarritako helburuaren azpitik gelditu ziren. Nerbioi Behean (Larraskituko neurketa gunea) baino ez zen gainditu ezarritako eguneko muga (50 µg/m³ urte zibil batean 35 aldiz baino gehiagoz gainditu ezin daitekeena), baina hori gehienbat gertatu da inguruetan egiten ari diren lanen ondorioz.

2010ean PM₁₀ partikulen urteko batez besteko kontzentrazioa 24 µg/m³-koa izan zen muga gainditutako eremuetan, hortaz, 2010. urterako helburu gisa aurreikusitakoa 4 puntu hobetu zen (28 µg/m³).

¹ Konposatu organiko lurrunkorrek giza jardueren ondoriozko konposatu organiko guztiak dira, metanoa ez direnak, baldin eta eguzki argia dagoenean eta nitrogeno oxidoekin erreakzionatuta, oxidatzaile fotokimikoak sor baditzakete (Europako Parlamentuaren eta kontseiluaren 2001/81/EE ZUZENTARAUUA, 2001eko urriak 23koa, atmosferako kutsatzaile jakin batzuk isurtzeko muga nazionalei buruzkoa).

²PM₁₀: EN 12341 arauan zehaztutako laginketa burutik 10 µmko diametro aerodinamiko baterako % 50eko banaketa errendimendu batekin pasatzen diren partikulak.

³ Inguruneko airearen kalitatearen ebaluazioari eta kudeaketari buruzko 1073/2002 Errege Dekretuak airearen kalitatea hobetzeko ekintza planak gauzatzeko beharra ezartzen du, airearen kalitatearentzat ezarritako muga balioak gainditzen dituzten eremuetan.

2.1 Airearen kalitatea

Urteko batez besteko PM ₁₀ kontzentrazioa (µg/m ³)						
	2008	2007	2008	2009	2010	Konpromisoa 2010
Hegoaldeko Araba	17	15	13	13	12	
Nerbioi Garaia	28	31	23	21	21	
Oria Garaia	34	30	20	20	18	30,3
Urola Garaia	31	37	21	26	24	28,2
Nerbioi Behea	36	35	27	25	24	32,2
Donostialdea	28	28	24	24	21	25,3
Enkarterria	23	24	20	20	17	
Deba Garaia - Ibaizabal	37	31	20	22	22	33,2
Kostaldea	25	21	19	19	18	22,8
Arabako Lautada	27	25	20	18	17	24,4
Arabako Errioxa	23	19	16	17	16	
Muga gainditzen duten eremuen batez bestekoa	31	30	22	22	24	28

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

3. konpromisoa, PM_{2,5}⁴

“Sareko estazioetan, Europar Batasunak zehaztuko duen PM_{2,5}-en urteko muga balioa ez gainditzea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: HANDIA ★★ ★

EAEko airearen kontrol eta kalitaterako sareko estazioetan jasotako PM_{2,5}-en urteko batez besteko kontzentrazioa ezarritako mugen barruan mantendu zen⁵ II. Ingurumen Esparru Programaren indarraldi osoan (2007-2010), eta urteko mugarik ez da gainditu, ezarritako helburua bete da, hortaz.

4. konpromisoa: KUTSATZAILEEN ISURKETAK

“NO_x, SO₂ eta konposatu organiko lurrunkorren isurpenak hurrengo ehunekoetan murriztea, oinarritzat 1990eko datuak hartuta: NO_x: -% 31, SO₂: -% 64, konposatu organiko lurrunkorak: -% 58.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ERTAINA ★★


SO₂-en isurpenek beheranzko joera izan zuten 2007-2009 aldian. Era berean, eskuragarri dugun azken datuak (2009) aipatutako isurpenak % 68an jartzen ditu, hau da, 1990eko bolumenaren azpitik, eta helburutzat hartutako balioa beteta (% 64ko murrizketa 1990eko datuekin alderatuta).

⁴ PM_{2,5}: EN 14907 arauan zehaztutako laginketa burutik 2,5 µmko diametro aerodinamiko baterako % 50eko banaketa errendimendu batekin pasatzen diren partikulak.

⁵ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2008/50/EE Zuzentarauak, 2008. urteko maiatzak 21, Europako airearen kalitateari eta atmosfera garbiagoari buruzkoak, PM_{2,5}-etarako 25 µg/m³-ko balio objektiboa ezartzen du 2010. urterako, eta balio hori ere muga-balio gisa 2015. urterako (Zuzentarauaren XIV. eranskina).


2.1 Airearen kalitatea

Espainiako eta Europar Batasuneko bilakaera ere beheranzkoa da, grafiko honetan ikus dezakegun bezalaxe:




NO_x-en isurpenek ere beheranzko joera izan zuten 2007-2009 aldian. Hala ere, oraindik oso urrun dago 2010erako proposatutako helburua. Izan ere, 2009. urtean NO_x-en isurpenak % 19 hazi dira oinarri urtearen aldean (helburuan ageri zen % 31ko murrizketaren orde).

Espainiako eta Europar Batasuneko balioek portaera hobea izan dute, bereziki Europar Batasunekoek, beheranzko joera nabarmena baitute.



Azkenik, EAEko konposatu organiko lurrunkorren isurpenak, 2009. urtean, % 9 murriztu dira oinarri urtearen aldean. Beheranzko joera dagoen arren, murrizketa helburu gisa jarritako % 58tik oso urruti dago.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila eta Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetakoa Ministerioa

2.1 Airearen kalitatea

5. konpromisoa: ZARATA

“Osasunerako Mundu Erakundeak aglomerazio handietarako gomendatutako mugak gainditzen dituzten zarata mailak jasaten dituzten herritarren kopurua %10 murriztea 2006 urtearekin alderatuta.”

Egun ez dago daturik adierazle honetarako.

Gauzatutako jarduerak

Airearen kalitateari dagokionez, 2010. urtean hainbat metal astunen (hala nola kadmioa, burdina, artsenikoa...) neurria prestatu zen eta hidrokarburo aromatiko polizikloen (HAP) lehenengo neurketak egin ziren; Buruntzaldea proiektua garatu zen. Proiektu honetan eskualdeko udalerriek taldean lan egin zuten airearen kalitatean zuten interakzioaren gaineko irudi osoa lortzeko. Gainera, unitate mugikorak erabiliz, airearen kalitatea neurtzeko kanpainak egin ziren, hainbat gorabeheri erantzun eta heltzeko (Zumarragan, Azpeitian, Amurrión eta Bilbon adibidez).

Halaber, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei emandako 2010eko diru laguntzen harira, airearen kalitatea hobetzeko 18 proiektu diruz lagundu genituen; aipatutako proiektuak gauzatzean, halaber, atmosferara isuritako gas kutsatzaileak murriztuko dira (152 tona SO₂, 61 tona NO_x eta 11 tona konposatu organiko lurrunkor).

Tokiko erakundeetan garapen jasagarria bultzatzen duten ekintzak sustatzeko deialdian, berriz, airearen kalitatea hobetzeko 15 proiektu finantzatu ditugu, eta horiei esker, urtean 8,7 tona material partikulatu gutxiago isuriko dira atmosferara.

Guneen kontrolari dagokionez, atmosfera kutsa dezaketen jardueren kutsadura gune finkoen gaineko administrazio esku-hartzea areagotu zen, eta Kutsaduraren prebentzioarako eta kontrol integraturako uztailaren 1eko 16/2002 Legea bete beharreko instalazioetan erabilgarri dauden teknika onenak ezartzen jarraitu genuen; horrelako teknikak jartzeak, gainera, industria jardueren eraginez atmosferara isuritakoa nabarmen murriztea dakar.

Kutsadura akustikoaren arloan, berriz, sailak funtsean neurriak hartu ditu industriako jardueretan erabilgarri dauden teknika onenak ezartzeko.

2.2 Uraren kalitate ona

	2. HELBURUA URAK KALITATE ONA	JOERA	2010ERA KO HELBURUA
			
“EAEko Plangintza Hidrologikoan zehaztutako ur masek egoera ekologiko⁶ ona izatea eta ur horiek ez kaltetzea, pertsonen garapena eta bizi kalitatea zein ekosistemen egoera ona bultzatzeko.”			
6. konpromisoa: AZALEKO URAK Azaleko ur masak babestea, hobetzea eta leheneratzea, % 80k egoera ekologiko ⁶ ona izan dezaten.			
7. konpromisoa: UR ARTIFIZIALAK Ur masa artifizialak eta oso aldatuta daudenak babestea eta hobetzea, % 80ek potentzial ekologiko ona eta egoera kimiko ona izan dezaten.			
8. konpromisoa: LURPEKO URAK Lurpeko ur masak babestea, hobetzea eta leheneratzea. Ur horiek ateratzearen eta elikatzearen arteko oreka bermatzea, lurpeko uren % 80ek egoera ona izan dezaten.			
9. konpromisoa: HONDAKIN URAK Saneamendu azpiegitura publikoek jaso beharreko herri eta hirietako hondakin urak, biztanleen % 97ri dagozkienak, isuriari eta hartzaileari egokitutako araztegiatan tratatzea.			
10. konpromisoa: BAINATZEKO URAK Bainatzeko uren neurketa-guneen % 95ek kalifikazio ona edo onargarria izan dezaten lortzea.			
11. konpromisoa: KONTSUMO URAK Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 95ei kalifikazio egokia duen kontsumitzeko ura hornitzea.			

Ur masen kalitateari buruzko konpromisoak ebaluatzeko neurtzeko zuzeneko sistemetan oinarritutako adierazleak erabiltzen dira. Horri esker datuak azkar lortu eta ondoren prozesa ditzakegu.

⁶ Uraren Esparru Zuzentara egokitzeak egoera ekologikoaren adierazlea hartu eta erabiltzea ekarri du, osoagoa baita. URAK urteko txosten osoak argitaratzen ditu, egoera ekologikoaren adierazlea osatzen duten azpiadierazleetan banatuta. Web gune honetan hain zuzen: http://www.uragentzia.euskadi.net/u81-0003/eu/contenidos/informacion/calidad_aguas/eu_doc/calidad_aguas_superficiales.html


2.2 Uraren kalitate ona

6. konpromisoa: AZALEKO URAK

“Azaleko ur masak babestea, hobetzea eta leheneratzea, % 80k egoera ekologiko ona izan dezaten.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: HANDIA ★★ ★

Hiriko eta industriako hondakin uren saneamendu arloan egindako ahaleginak **ibailetako** ur masen egoera ekologikoa nabarmen hobetzea ekarri du. Hala eta guztiz ere, egoera 2007-2010 aldirako Ingurumen Esparru Programan ezarritako helburutik urruti dago, eta ibai tarte handiak egoera txarrean daude, bereziki Nerbio-Ibaizabal, Deba eta Oria ibaien arroetan.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila eta Uraren Euskal Agentzia (URA)

Adierazlearen bilakaera positiboa egonik ere, IEPrako proposatutako helburua lortzea oso urruti gelditzen da. Horregatik, uste dugu proposatutako helburua agian baikorregia izan zela aintzat hartutako aldirako.

Kostaldeko uren bilakaera oso positiboa da. 2010ean kategoria honetako 4 ur masetan ingurumen helburuak bete ziren, eta egoera ekologikoa oso ona izan zen hirutan (Getaria-Higerrekoak egoera ekologiko ona du). Halaber, gaineratu behar dugu Monpas-Pasaia aldean egoera tradizionala moderatutik oso onera igaro dela azken urtean.

Tarteko urei⁷ dagokienez, 2010ean kategoria honetako ur masen % 30ak egoera ekologiko oneko edo oso oneko ingurumen helburuak betetzen zituzten, eta 2007an ehuneko hori % 70era iristen zen.

Aintzira eta hezeguneetako⁸ ur masen egoera ekologikoari dagokionez, 2007-2010 aldian bilakaera positiboa egon zen, baina berau ez da oraindik aski ezarritako helburua lortzeko.

⁷ Tarteko urak: ibai bokaleetatik hurbil dauden lur azaleko ur masak, neurri batean gaziak direnak itsasoko urarekin bat egiten dutelako, baina ur gezaren aski eragin handia ere izaten dutenak.

⁸ Hezeguneak: padurak, estuarioak, itsas aintzirak, zingirak... bezalako ekosistema guztiak; hauetan ur gezak edo gaziak, jasangarriak edo aldi baterakoak, sakonera txikia izaten du.


2.2 Uraren kalitate ona

7. konpromisoa: UR ARTIFIZIALAK

“Ur masa artifizialak eta oso aldatuta daudenak babestea eta hobetzea, % 80ek potentzial ekologiko ona eta egoera kimiko ona izan dezaten.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: **HANDIA** ★★ ★

Ibaietako asko eraldatutako ur-masei⁹ dagokienez, 2007tik 2010era bitartean bilakaera positiboa izan zuten.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila eta Uraren Euskal Agentzia (URA)

Tarteko uretan 2007tik eta 2010era bitarteko bilakaera ere positiboa izan zen.

Adierazlearen bilakaera positiboa egonik ere, II. IEPrako proposatutako helburua lortzea urruti gelditzen da. Horregatik, uste dugu proposatutako helburua agian baikorregia izan zela aintzat hartutako aldirako. Ibaietako ur masen egoera kimikorako bakarrik lortzen da eta ez tarteko uren masen egoera kimikorako, ezta ibaietako edo tarteko uren ur masen adierazle biologikoetarako ere.

8. konpromisoa: LURPEKO URAK

“Lurpeko ur masak babestea, hobetzea eta leheneratzea. Ur horiek ateratzearen eta elikatzearen arteko oreka bermatzea, lurpeko uren % 80ek egoera ona izan dezaten.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: **HANDIA** ★★ ★

Konpromiso honi dagokionez, programaren indarraldian egindako ateratzeek ez dute eragin handirik maila piezometrikoaren bilakaeran. Bere egoerari dagokionez, kontrolatutako masen % 5 baino ez dira egoera kimiko onera iristen.

⁹ Askok eraldatutako ur-masak: Lur azaleko ur-masa, gizakiaren jarduerak eragindako aldaketa fisikoen ondorioz bere nolokotasunean aldaketan abarmenak izan dituen eta 2000/60/EE Zuzentarauko II. Eranskinean esaten denaren arabera halakotzat jo dena.


2.2 Uraren kalitate ona

9. konpromisoa: HONDAKIN URAK

“Saneamendu azpiegitura publikoek jaso beharreko herri eta hiritako hondakin urak, biztanleen % 97ri dagozkionak, isuriari eta hartzaileari egokitutako araztegietan tratatzea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ERTAINA ★ ★

2007-2010 aldian hondakin uren araztegiko ura baliatzen duen biztanle ehunekoa handitu zen.




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila eta Uraren Euskal Agentzia (URA)

10. konpromisoa: BAINATZEKO URAK

“Bainatzeko uren neurketaguneen % 95ek kalifikazio ona edo onargarria izan dezaten lortzea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: HANDIA ★ ★ ★

2007-2010 aldian 2006ko erreferentzia balioa hobetu zen urte guztietan, eta 2010ean konpromiso honetan ezarritako helburua bete zen.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saila eta Uraren Euskal Agentzia (URA)

EAEko uraren kalitatea Europako balioetatik oso gertu dago. 2008an, EB-27an, kostaldeko bainatzeko uren % 96,3k kalitate ona edo onargarria zuten, eta 2009an ehuneko hori % 95,6koa izan zen.


2.2 Uraren kalitate ona

11. konpromisoa: KONTSUMO URAK

“Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen % 95ei kalifikazio egokia duen kontsumitzeko ura hornitzea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: HANDIA ★ ★ ★

2007-2010 aldian zehar, euskal herritarrek jasotako kontsumo urak kalitate maila handia izan zuen. 2010. urtean kalitate oneko uraren ehunekoa % 96koa izan zen, eta aldi honetarako ezarritako helburua gainditu zen (% 95). Halaber, nabarmendu behar dugu 2010ean eskasatzat hartutako ura guztiaren % 1 baino ez zela izan (aztertutako aldiaren ehunekorik txikiena).



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saila eta Uraren Euskal Agentzia (URA)

Gauzatutako jarduerak

Uraren Euskal Agentziak (URA) 2010ean 2011-2015 aldirako EAEko Barnealdeko Arroen Plan Hidrologikoaren Proiektua aurkeztu zuen, eta abenduan jendaurrean jarri zen. Plan hau prestatzeko prozesuan zehar interesaturiko alderdiek (administrazio publikoek, ur zerbitzuen eskaintzaileek, erabiltzaileek eta herritarrek oro har) aktiboki parte hartu dute.

Plan honek uraren kudeaketa eraginkorra eta jasangarria bilatzen du, EAEko ingurumen helburuak lortzearen eta Uraren Esparru Zuzentzarauaren (2000/60/EE) jarraibideei kasu egitearen bidez. Helburu nagusi hauek ditu: ur sistemen egoera ona lortzea; ur eskariak bermatzea; eta uholdeek eta lehorteeek eragindako kalteak murriztea. Helburu hauek lortzeko, Planak hainbat neurri proposatzen ditu, hiru kategoriatan sartzen direnak: ur baliabideen fisikokimikaren aldatetekin lotutako neurriak, hau da, kutsadura murrizteko neurriak; ur masen aldateta hidrologikoekin eta morfologikoekin lotutako neurriak, hau da, habitata hobetzeko neurriak; eta azkenik, ur ekosistemen bioaniztasunaren aldatetekin lotutako neurriak.

Azkenik, 2010ean ingurumena babesteko ekintzak egin ditzaten enpresen proiektuei emandako diru laguntzen bitartez, uretara urtean 77 tona kutsatzaile isur daitezzen saihestea lortu dugu.



2.3 Lurzoruaren kutsadura prebenitzea eta kutsatutakoa garbitzea

	3. HELBURUA LURZORUAREN KUTSADURA PREBENITZEA ETA KUTSATUTAKOA GARBITZEA	JOERA	2010ERA KO HELBURUA
			
<p>“Lurzorua bikain kudeatzea, kutsadura historikoaren lehentasunezko berreskupenaren bidez eta beste kutsadura mota batzuk prebenitzea.”</p>			
12. konpromisoa: LURZORUAREN KUTSADURA PREBENITZEA Lurzoruaren kutsadura prebenitzea, dauden tresna espezifikoek baliatuta (egoerari buruzko aurreiazko txostenak).			
13. konpromisoa: LURZORUA ERABILERA BERRIETARAKO BERRESKURATZEA Potentzialki kutsatuta dauden lurzoruen 407 hektarea berreskuratzea. Hiri antolamenduak lurzoru horiei erabilera berri bat ematea edo bertan jarduera berri bat gauzatzea aurreikusten du.			
14. konpromisoa: LURZORUA ERABILERA BERRIETARAKO IZAN GABE ERREKUPERATZEA Potentzialki kutsatuta dauden lurzoruen 35 hektarea berreskuratzea. Hiri antolamenduak ez du lurzoru horiei erabilera berririk ematea edo bertan jarduera berririk gauzatzea aurreikusten.			
15. konpromisoa: ZABORTEGI EZ AKTIBOAK Jabetza publikoko zabortege ez aktiboen etengabeko ingurumen kontrola eta jarraipena.			

12. konpromisoa: LURZORUAREN KUTSADURA PREBENITZEA


“Lurzoruaren kutsadura prebenitzea, dauden tresna espezifikoek baliatuta (egoerari buruzko aurreiazko txostenak).”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: HANDIA ★ ★ ★

2010. urtean egoerari buruzko aurreiazko txostenak baloratzeko aldia bukatu da, lurzoruaren kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko 1/2005 Legea betez. Egindako balorazioak industria jardueretara zuzendutako tokietan kutsadurari aurrea hartzeko estrategia espezifikoa laguntzeko balio izango du.

2010. urtean egoerari buruzko aurreiazko 86 txosten egin ditugu, hortaz, guztira 3.906 txosten edukiko ditugu 2007-2010 aldiaren amaierarako. Urte horretan, gainera, administrazioak egoerari buruzko aurreiazko txostenen % 97ren hasierako balorazioa egin du.

2.3 Lurzoruaren kutsadura prebenitzea eta kutsatutakoa garbitzea




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

13. konpromisoa: LURZORUA ERABILERA BERRIETARAKO BERRESKURATZEA

“Potenzialki kutsatuta dauden lurzoruaren 407 hektarea berreskuratzea. Hiri Antolamenduak lurzoru horiei erabilera berri bat ematea edo bertan jarduera berri bat gauzatzea aurreikusten du.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: **HANDIA** ★ ★ ★

Grafikoan ikus daitekeen bezala, eta egungo egoera ekonomikoa gorabehera, erabilera berrietarako berreskuratutako hektarea kopuruak goranzko joera izan du. 2010ean 423 hektarea kutsatuta egon daitezkeen lurzoru berreskuratuta dira, 2010. urterako ezarritako 407 hektareako helburua gaindituta. Hazkundera aurreko aldiarena baino handiagoa izan da, funtsean batez bestekoa baino azalera handiagoko hainbat lursailen lurzoru kalitatea adierazteagatik.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

2.3 Lurzoruaren kutsadura prebenitzea eta kutsatutakoa garbitzea

14. konpromisoa: LURZORUA ERABILERA BERRIETARAKO IZAN GABE ERREKUPERATZEA

“Potentzialki kutsatuta dauden lurzoruen 35 hektarea berreskuratzea. Hiri Antolamenduak ez du lurzoru horiei erabilera berririk ematea edo bertan jarduera berririk gauzatzea aurreikusten.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: HANDIA ★ ★ ★

Urteotan EAEko lurzoruaren kutsadurari aurre egiteko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legearen 17. artikuluan aipatzen den egoeraren bat duten kokaguneetako kutsatutako lurzoruak ari gara erreperatzen, esku hartzeren bat duten tokiak, alegia (jarduerak ezarri eta handitzea, erabilera aldatzea, lur mugimenduak...). Epe labur eta ertainean hirigintza aurreikuspenak dituzten lurzoruak dira, oro har; hortaz, aldirako ezarritako helburua -35 hektarea leheneratzea-lortzerik ez dugu izan.

Beste gune batzuetan egondako jarduerak urriak eta garrantzi txikikoak izan dira, eta zabortege publikoekin (hauen berri 15. konpromisoan emango dugu) eta udal titularitateko kokaguneekin lotuta daude gehienbat; azkeneko hauetan, gainera, ikerketak eta erreperaketak organo honen diru laguntza jaso dute garapen jasagarria bultzatzen duten ekintzak egiten dituzten udalei, mankomunitateei, bestelako tokiko erakundeei, tokiko erakunde autonomoei eta tokiko merkataritza sozietateei emandako laguntzen barruan.

15. konpromisoa: ZABORTEGI EZ AKTIBOAK

“Jabetza publikoko zabortege ez aktiboen etengabeko ingurumen kontrola eta jarraipena.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: HANDIA ★ ★ ★

Helburu hau optimizatzeko, jauzi kualitatiboa eman dugu hasierako aurreikuspenaren aldean; azken honetan, izan ere, aurretiko fase gisa, zabortegeen libiatuak aztertzen ziren ingurumen organo honen lehentasunak finkatzeko jabetza publikoko zabortege ez aktiboei dagokionez. Hala, eskuragarri ditugun libiazio datuak zein bestelako alderdi garrantzitsu batzuk (arrisku hartzaileen sentikortasuna eta isuritako hondakinen tipologia eta bolumena, bestek beste) aintzat hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoan identifikaturik dauden zabortege publiko ez aktibo guztien lehentasun zerrenda egin dugu, eta 2010eko urtean (hurrengo urteetan jarraipena izango duen I. fasea) lehentasun fasean puntuazio handiena izan duten 11 zabortegeiak aztertzeari ekin diogu, eta, egokia izan denean, ekintza planak ere egin ditugu.

Gauzatutako jarduerak

2010. urtean ere ekintza ugari egin ditugu lurzoruaren kutsadurari aurre egiteko eta kutsatutakoa garbitzeko arloan.

Ekintza hauek burutu ditugu **zabortegeiak kontrolatzeko** arloan:

Azterlan juridiko teknikoa egin dugu zabortege ez aktiboetan esku hartzeko aukerei buruz; aukera hauek aldatzen dira funtzionamenduan izandako lege egoeragatik edo bere iraupenagatik.

Zabortege publikoen kontrolari dagokionez, jarduerak 15. konpromisoari buruzko atalean zehaztuta daude; eta II. fasea esleitzeko prestaketa lanak ere bukatzen ari gara.

Zabortege pribatuen kontrolari dagokionez, jarduera estrategia diseinatu dugu instalazio horiek izan dezaketen eragina zehazteko eta, era horretan, beharrezkoa bada, arduradunek hartu beharreko neurriak finkatzeko; halaber, arlo honetako lehen lanen esleipena 2011. urterako aurreikusita dago.

Kutsatutako lurzoruen planaren garapenari dagokionez, hainbat jarduera burutu ditugu:

2.3 Lurzoruaren kutsadura prebenitzea eta kutsatutakoa garbitzea

“Ezagutu” lan programaren barruan, lurzoria kutsa dezaketen jarduerak dituen lurzoruen inbentarioaren eguneratzea bukatu eta baliozkotu dugu, zehatz-mehatz berrikusi ondoren, eta berau onartzeko izapideak 2011ko 2. seihilekoan hastea aurreikusita dago. Aipatutako egunerapena organo honen informazio geografikoaren sistemara erantsi dugu, egin litezkeen kontsultei kasu egiteko.

“Eragin” programaren barruan, sailaren zerbitzu teknikoek EAeko lurzoruaren kutsadurari aurre egiteko eta kutsatutakoa garbitzeko 1/2005 Legea aldatzeko testua egin dute, aplikazio denboran hartutako eskarmentua eta oinarrizko araudi berriaren onspena aintzat hartuta. Zuzenean nahastutako eragileekin aldi batez eztabaidatu ondoren, 2011. urte amaieran izapideei formalki ekitea aurreikusten dugu.

Programa honen barruan, bestalde, hainbat administrazioekin elkarlanean aritu gara eta laguntza teknikoa eman diegu, kutsatutako eremu zehatzak kudeatzeko (udalak, ETORLUR, Jaizkibia) zein lurzoruaren kalitatearen irizpideak beste politika batzuetan (hirigintza, ura eta elikagaien segurtasuna) txertatzeko.

“Ekin” lan programari dagokionez, esku hartutako azken industrialdeak ikertzeko lanak bukatu dira, eta beren kalitatea adierazten duten eta, hala badagokio, zuzentzeko beharrezko neurriak zehazten dituzten ebazpenak 2011. urtean zehar ematea aurreikusten dugu.

Hondeatzea eta isurtzea ez diren lurzoru teknologiak aplikatzea sustatzeko tresnak identifikatzeko proiektuari ere ekin diogu.

Herritarrei emandako informazioaren kalitatea eta eskuragarritasuna ere hobetu ditugu sailaren eta lhoberen web orrien bitartez.

Azkenik, **kutsatutako lurzoruak kudeatzeari** dagokionez, kutsatutako lurrak hondeatzeko jarraibide administratibo eta teknikoak ematen dituen gidaliburua bukatuta dago, eta orain baliozkotzen ari gara.

Horretaz gain, lurpeko uren kutsadura kudeatzeko dauden tresnak baloratzeko agiria ere prestatu dugu, eta URAREN EUSKAL AGENTZIARI (URA) laster jakinaraziko diogu.

Ingurumena babesteko inbertsioak egin ditzaten enpresei 2010ean eman beharreko diru laguntzen barruan, hainbat proiektu diruz lagundu ditugu. Horiek kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen 6.410 m² ikertzea edota errekupeketa ekarri dute.

2.4 Baliabide naturalen kontsumo arduratsua

	4. HELBURUA BALIABIDE NATURALEN KONTSUMO ARDURATSUA	JOERA	2010ERAKO HELBURUA
			
<p>“Baliabide naturalen (ura, energia, materialak eta lurzorua) kontsumo arduratsua sustatzea eta, ikerketaren zein berrikuntzaren bidez, kontsumoaren eraginkortasun maila optimizatzea, lehia hobetzeko.”</p>			
<p>16. konpromisoa: KONTABILIZATU GABEKO URA Hirian kontabilizatu gabeko ur eskaria murriztea, hornituriko biztanleriaren % 80entzat % 25eko mailak lortu arte.</p>			
<p>17. konpromisoa: UR ALTEN ESKAERA Ur hornidura publikorako eta industria zein nekazaritza jardueretarako hartuneen alta eskaria kopurua % 20 murriztea, 2001. urtearekiko.</p>			
<p>18. konpromisoa: MATERIALEN KONTSUMOA Baliabideen kontsumoaren eraginkortasuna (eraginkortasun materiala) 2001. urteko mailetan mantentzea.</p>			
<p>Eusko Legebiltzarrak baliabide naturalak erantzukizunez kontsumitzeko helburu estrategikoarekin lotuta onartutako ebazpenak</p> <p>“Eusko Legebiltzarrak honako jardunbideak baliabide naturalen kontsumo arduratsuekin loturiko 2. xedea lortzeko helburu estrategiko izenda ditzala agintzen dio Eusko Jaurlaritzari, hori egitea ezinbestekoa dela iritzita:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Eskumena duten erakundeei neurri fiskalak ezar ditzaten proposatzea, azpiegiturak eraikitzerakoan materialak berrerabil daitezela sustatzeko. 2. Jardunbide egokien ikasliburua idaztea eta kaleratzea, bizilekuetan energia kontsumo arduratsua sustatzeko, aurrezki eta eraginkortasun energetikoa areagotzeko eta ingurumenaren gaineko eragina murrizteko.” 			

16. konpromisoa: KONTABILIZATU GABEKO URA

“Hirian kontabilizatu gabeko ur eskaria murriztea, hornituriko biztanleriaren % 80entzat % 25eko maila lortu arte.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: TXIKIA ★

Ur galera hauen barruan banaketa sareko eta hartuneetako ur ihesak, hausturak eta matxurak sartzen dira.

2007-2010 aldirako 2007. eta 2008. urteetan banaketa sarean egondako ur galeren adierazlearen balioak baino ez ditugu. 2007. urtean adierazlea % 16an egon da, eta 2008. urtean % 15ean (2001. urtean balio hau % 26koa zen). Espainian, berriz, balio hori % 18,02an zegoen 2008. urtean.

Compromiso 17: DEMANDA EN ALTA DE AGUA

“Reducir la demanda en alta del suministro público de agua y las tomas propias para actividades industriales y agrícolas un 20% respecto al año 2001.”

CALIDAD DE LA INFORMACIÓN CAPV: BAJA ★

2.4 Baliabide naturalen kontsumo arduratsua

2007-2010 aldian, dena den, konpromiso honen adierazleari dagokionez, 2007. eta 2008. urteetako datuak baino ez ditugu. 2007. urtean eskaria 231.831 hm³-koa izan zen, eta 2008an 239.981 hm³-koa; hortaz, % 3,5eko hazkundera egon zen aurreko urtekoaren aldean.

2001. (273.271 hm³) eta 2008. urte bitartean, adierazle honetan % 12ko murrizketa baino ez zen egon. Aldi berean, Espainian, EAEkoa baino murrizketa txikixeagoa gertatu da.

2008. urtean, autonomia erkidegoetako urte arteko aldaketak beherakada arina izan du. Autonomia Erkidegoen artean aldeak daude, nolana ere. Ceuta eta Melillako (+% 25) eta Errioxako (+% 15) hazkundera nabarmentzen dira. Katalunian, Extremaduran, Asturiasen, Madrilan eta Andaluzian, aitzitik, beherakada nabarmenak dituzte.

Espainian joera egonkorragoa egon da, eta aldiaren amaieran murrizten hasi da; EAEn, berriz, hasieran beheranzko joera egon da baina gero igotzen hasi da.

18. konpromisoa: MATERIALEN KONTSUMOA

“Baliabideen kontsumoaren eraginkortasuna (eraginkortasun materiala) 2001. urteko mailetan mantentzea.”

2007-2010 aldirako ez dugu adierazle honen gaineko informaziorik.

Gauzatutako jarduerak

Materialak eta energia kontsumitzeari dagokionez, 2010eko hirugarren eta laugarren hiru hilabeteetan ekodiseinuko ezagutza aurreratua transferitzeko moduluak abiarazi dira. Prestakuntza programa honen bidez EAEn ingurumenaren esparruan aurreratuen dauden enpresen eskakizunei erantzun zaie.






2010. urte erdialdean IV. “Environmental Product and Building Innovation” kongresua izan zen; bertan Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak ekodiseinuaren eta eraikuntza jasangarritasunaren arloan ehun euskal enpresa baino gehiagorekin egindako lanaren emaitzak aurkeztu zituen.

ISO Nazioarteko Batzordeak aitortu bezala, AENORek garatutako UNE 150.301 Ekodiseinu Araua (berau prestatzen Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak ere parte hartu du), geroko ISO 14006 Mundu Araua eta CEN Europako araua (biak ekodiseinukoak) izango da. Erosketa publiko berdeari buruzko politiken eta energiarekin lotutako produktuen (ErP) zuzentarau berriaren baldintzak enpresei betetzen laguntzeko tresna izango da araua.

EAEko 40 enpresa eta erakunde baino gehiagoren laguntzaz diseinatutako “Ekoeraginkortasuna Euskal Enpresan 2010-2014 Programa” harreman publiko-pribatuko esparru berritzailea da, eta bere barruan enpresek ingurumen jarduerak egiteko konpromisoa hartzen dute, ezagutza eta esperientzia trukatzeko dituzte eta laguntza teknikoa jasotzen dute. Zehazkiago, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak ekonomiari eta ingurumenari begira eraginkoragoak diren teknologiak ezartzeko laguntzak jarriko ditu enpresa parte-hartzaileen eskura. Laguntza horien barruan zerbitzuak, metodologiak, prestakuntza eta laguntza ekonomikoak sartzen dira. Gainera, ingurumen legedia betetzeko laguntza ere eskainiko die, baita ingurumen arloko trebakuntzarako ere, eta enpresa sareari Europan sortzen ari diren merkatu berdeetan kokatu eta lehiakorrak izateko gakoak eskainiko dizkio. Ekimenak 15 milioi euroko aurrekontua du eta, aurreikuspenen arabera, 100.000 tona CO₂ murriztea, 100.000 tona hondakin balioztatzea eta 200.000 tona lehengai gutxiago kontsumitzea lortuko du.

Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei 2010ean eman beharreko diru laguntzen barruan lagundutako proiektuen bidez, berriz, 82.000 m³ ur gutxiago kontsumitzea lortu da.

2.5 Energia kontsumo eta ekoizpen jasangarria sustatzea

	5. HELBURUA ENERGIA KONTSUMO ETA EKOIZPEN JASANGARRIA SUSTATZEA	JOERA	2010ERA KO HELBURUA
			
<p>“Kontsumoko sektore guztietan, energia aurrezteko, eraginkortasunez baliatzeko eta energia berriztagarriak erabiltzeko joera sustatzea.”</p>			
<p>19. konpromisoa: ENERGIA AURREZTEA 2010. urterako 975.000 pbt energia aurrezkoa lortzea.</p>			
<p>20. konpromisoa: ENERGIA-ERAGINKORTASUNA Intentsitate energetikoa 2000. urtearekiko % 16 hobetzea.</p>			
<p>21. konpromisoa: JATORRI BERRIZTAGARRIKO ELEKTRIZITATEA ETA KOGENERAZIOA Kontsumoaren % 29 energia berriztagarriaren eta kogenerazioaren bitartez egin dadin lortzea.</p>			
<p>22. konpromisoa: BIOERREGAIAK Garraioan, urteko, 177.000 pbt-ko bioerregai kontsumoa lortzea.</p>			
<p>Eusko Legebiltzarrak energiaren kontsumo eta ekoizpen jasangarria sustatzeko helburu estrategikoarekin lotuta onartutako ebazpenak</p>			
<p><i>“Energia jasangarritasunez kontsumitzeko eta ekoizteko, Eusko Legebiltzarrak beharrezkotzat jotzen du ekintza ildo hau helburu estrategiko gisa finkatzea:</i></p>			
<p>1. Bai Eusko Jaurlaritzaren, bai Eusko Legebiltzarraren eraikinetan, eguzki panelak paratzeko plana osatzea eta horien bidez argiteria, ur beroa eta berokuntza beharrak asetzea zer neurritan den bideragarri zehazteko. 2. Foru aldundiek eta udalek helburu hori bera duten programak garatzea. 3. Eskumena duten erakundeek dauden etxe eta eraikinetan eguzki-panel termikoak paratzeko diru-laguntzak ematea eta sustapena sendotzea.”</p>			

19. konpromisoa: ENERGIA AURREZTEA


“2010 urterako, 975.00 pbt energia aurrezkoa lortzea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ERTAINA ★ ★

Adierazle honek 2007-2010 aldian oso bilakaera positiboa izan zuen; hala ere, ez da aski azken helburua (975.000 pbt aurreztea) betetzeko.

Adierazlearen bilakaera positiboa bada ere, ezinezkoa gertatu da II. IEPrako proposatutako helburua betetzea. Horregatik, uste dugu proposatutako helburua agian baikorregia izan zela aintzat hartutako aldirako.

2.5 Energia kontsumo eta ekoizpen jasangarria sustatzea



Iturria: Energiaren Euskal Erakundea

2010ean pilatutako energia aurrezkia 930.087 petrolio baliokide tonakoa izan da, finkatutako helburuaren % 95 alegia.


Energiaren azken kontsumoaren bilakaera sektoreen arabera begiratzuz gero, 2000. urtea oinarritzat hartuta, nekazaritza eta arrantza sektorean kontsumoa nabarmen murriztu da, industria sektorean pixka bat murriztu da eta, garraioren, egoitzaren eta zerbitzuen sektoreetan, ordea, apur bat igo da. Osotara hartuta, 2000-2009 aldian energia kontsumoak goranzko joera du

20. konpromisoa: ENERGIA ERAGINKORTASUNA

“Intentsitate energetikoa 2000. urtearekiko % 16 hobetzea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ERTAINA ★★

EAEko energia intentsitateak¹⁰ hobera egin du 2007-2010 aldian. 2010eko balioak % 14,1 hobetu zuen 2000koa; hala, balio hau 1,9 puntu gelditu da proposatutako helburuaren (% 16) azpitik. Horregatik, uste dugu II. IEPrako proposatutako helburua agian baikorregia izan zela aintzat hartutako aldirako.



Iturria: Energiaren Euskal Erakundea

¹⁰ Adierazle hau kalkulatzeko energia kontsumoaren eta eguneko prezioetako BPGren arteko harremana hartzen da kontua; hortaz, zenbat eta txikiagoa izan ekonomia baten energia intentsitatea, orduan eta handiagoa izango da bere energia eraginkortasuna.

2.5 Energia kontsumo eta ekoizpen jasangarria sustatzea


Estatuan zein Europan, intentsitate energetikoa hobera ere egin du 2000-2008 aldian. 2007tik 2008ra zehazki, EB-27ko intentsitate energetikoa % 1,3 murriztu zen, Espainiakoa % 4,2 eta EAEkoa % 0,9.

21. konpromisoa: JATORRI BERRIZTAGARRIKO ELEKTRIZITATEA ETA KOGENERAZIOA

“Elektrizitate kontsumoaren % 29 energia berriztagarriaren eta kogenerazioaren bitartez egin dadin lortzea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ERTAINA ★ ★

2007-2010 aldian, EAEn energia berriztagarritik eta kogeneraziotik etorritako elektrizitate kontsumoaren ehunekoa handitu zen, % 14tik % 18ra; ez da lortu, beraz, 2010erako proposatutako helburua betetzea (% 29).



Iturria: Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila eta Energiaren Euskal Erakundea

Eurostaten datuen arabera, iturri berriztagarriak erabiliz sortutako elektrizitate ehunekoek (baterako sorkuntza bidezko elektrizitate ekoizpena barne hartu gabe) goranzko joera dute Espainian, Europan eta EAEn. Hala, 2008an Espainiak % 20,6 ekoitzi zuen, Europa-27k % 16,7 eta EAEk % 5,8 bakarrik.

2.5 Energia kontsumo eta ekoizpen jasangarria sustatzea

22. konpromisoa: BIOERREGAIK


“Garraioan, urteko 177.000 pbt bioerregai kontsumoa lortzea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ERTAINA ★★

2007-2010 aldian zehar garraioko bioerregaien kontsumoa 76.802 petrolio baliokide tona (pbt) hazi zen, 24.673 pbt izatetik 101.475 pbt izatera; hain zuzen.

Halaber, 2010ean % 67ko hazkundera egon da 2009. urtekoarekin alderatuta.

Hala eta guztiz ere, eta adierazleak joera positiboa eduki arren, ez da bete 2010erako proposatutako helburua (177.000 pbt-ko kontsumoa). Horregatik, uste dugu proposatutako helburua agian baikorregia izan zela aintzat hartutako aldirako.



Iturria: Energiaren Euskal Erakundea

Bioerregaiaren kontsumoa gero eta handiagoa da Europan eta Espainian. 2006-2008 aldian, kontsumo hau % 75 handitu da EB-27an eta % 171 Espainian.

Gauzatutako jarduerak

2010ean hainbat jarduera egin genituen energia eraginkortasunari dagokionez; hauek nabarmen ditzakegu, besteak beste:

Udalerrietan energia jasangarritasunerako jarduerak sendotu genituen Europako Batzordeak EAEn sustatutako alkateen ituna bultzatuta. 10 udalerririk ituna sinatu dute (EAEko biztanleen % 42 barne hartuta), eta energia jasangarriaren arloan ekintza planak prestatzen ari dira.

Hainbat ekimenen bitartez ibilgailu elektrikoa garatzeko oinarriak ezartzen hasi ginen, etorkizuneko teknologia izango delakoan; tartean Ibil kapital misto publiko eta pribatuko enpresa dago, nagusiki ibilgailuak birkargatzeko instalazioak abiaraztea sustatzeko xedea duena.

Energia jasangarriaren arloan ikerketa eta garapena bultzatu genituen, CIC Energigune Lankidetzeta Ikerketa Zentroa inauguratuta eta BIMEP uhinen energia ikertzeko plataformaren proiektua garatuta.

Leihoak, etxeko galdarak eta etxetresna elektriko zaharrak energia eraginkortasun handiko bestelako hornidurez ordezkatzeko Renove Planak jarraitu genituen, besteak beste, etxeko energia kontsumoa murrizteko.

2.6 Hondakinak murriztea eta tratatu gabeko zero isuri

	6. HELBURUA HONDAKINAK MURRIZTEA ETA TRATATU GABEKO ZERO ISURI	JOERA	2010ERA KO HELBURUA
<p>“Hondakin gutxiago sortzea eta horien kudeaketa hobetzea, tratatu gabeko hondakinen isurketa maila hutsera iritsi arte.”</p>			
<p>23. konpromisoa: INDUSTRIA- HONDAKIN ETA BALIO ERANTSI GORDINAREN ARTEKO LOTURA HAUSTEA Industria-hondakinen sorkuntzaren eta balio erantsi gordinaren arteko lotura haustea.</p>			
<p>24. konpromisoa HONDAKIN ARRISKUTSUEN BALORIZAZIOA Hondakin arriskutsuetan dauden baliabide materialak berreskuratzea, haien birziklatze tasa % 65era arte areagotuta.</p>			
<p>25. konpromisoa: ERAIKUNTZAKO ETA ERAISPENEO HONDAKINAK BIRZIKLATZEA EAEn sortzen diren eraikuntzako eta eraispeneo hondakinen % 70 berrerabiltzea eta birziklatzea lortzea.</p>			
<p>26. konpromisoa: HONDAKIN EZ ARRISKUTSUAK BIRZIKLATZEA Jatorri industriala duten hondakin ez arriskutsuen birziklatze maila % 75 izatea.</p>			
<p>27. konpromisoa: HIRI HONDAKINAK BIRZIKLATZEA Sortutako hiri hondakin guztien % 35 birziklatzea.</p>			
<p>28. konpromisoa: HIRI HONDAKINEN ZERO ISURIA Tratatu gabeko hiri hondakinik ez isurtzea.</p>			

23. konpromisoa: INDUSTRIA - HONDAKIN ETA BALIO ERANTSI GORDINAREN ARTEKO LOTURA HAUSTEA


“Industria-hondakinen sorkuntzaren eta balio erantsi gordinaren arteko lotura haustea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: HANDIA ★ ★ ★

2007 eta 2008 bitartean sortutako industria hondakinak (arriskutsuak eta ez arriskutsuak) murriztu ziren. Industriako balio erantsi gordina ere murriztu zen.

Murrizketa are handiagoa da hondakin arriskutsuei dagokienez, hortaz, 2007-2008 aldian hondakin hauetan apurtu da sortutako bolumenaren eta industriako balio erantsi gordinaren arteko lotura. Nolanahi ere, datuen serie historikoa handitu behar dugu ondorio argiak atera nahi baditugu.

2.6 Hondakinak murriztea eta tratatu gabeko zero isuri




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila eta Eustat

24. konpromisoa: HONDAKIN ARRISKUTSUEN BALORIZAZIOA

“Hondakin arriskutsuetan dauden baliabide materialak berreskuratzea, horien birziklatze tasa % 65era arte areagotuta.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: HANDIA ★ ★ ★

Hondakin arriskutsuen balioztapen tasak, sortutako hondakin guztien aldean, joera positiboa izan du, eta 2008an % 6 hazi da 2007koaren aldean. Joera honi datozen urteotan eutsiz gero, 2010ean proposatutako helburua erdietsiko da.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila


2.6 Hondakinak murriztea eta tratatu gabeko zero isuri

25. konpromisoa: ERAIKUNTZAKO ETA ERAISPENeko HONDAKINAK BIRZIKLATZEA

“EAEn sortzen diren eraikuntzako eta eraispeneko hondakinen % 70 berrerabiltzea eta birziklatzea lortzea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: TXIKIA ★

2007 eta 2009 bitartean birziklatutako eraikuntzako eta eraispeneko hondakinak gehiago izan ziren; hala, % 52ko birziklatze tasa egon zen. 2009an birziklatze tasaren balioa handitu zen aurreko urtekoaren aldean; dena den, egungo ehunekoa 2010erako helburutik (% 70) urruti dago oraindik.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila


26. konpromisoa: HONDAKIN EZ ARRISKUTSUAK BIRZIKLATZEA

“Jatorri industrialak duten hondakin ez arriskutsuen birziklatze maila % 75 izatea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: HANDIA ★★ ★

2008. urtean hondakin ez arriskutsuen birziklatzea apur bat hazi zen 2007. urtekoaren aldea (+% 2). 2008. urtean 3.441.248 tona hondakin ez arriskutsu sortu ziren, eta hauetatik 2.336.745 tona birziklatu ziren.

Hondakinen % 68 birziklatu zen 2008an, baina 2010erako hondakin ez arriskutsuen % 75 birziklatzeko konpromisoa zegoen.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila


2.6 Hondakinak murriztea eta tratatu gabeko zero isuri

27. konpromisoa: HIRI HONDAKINAK BIRZIKLATZEA

“Sortutako hiri hondakin guztien % 35 birziklatzea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: HANDIA ★★★

2007-2009 bitartean birziklatze tasak ez du ia aldaketarik izan (% 31 eta % 32, hurrenez hurren -2008an ere % 32koa izan zen-). II. Ingurumen Esparru Programaren indarraldian hobekuntza txikia egon da, neurri handi batean, gaikako bilketa asko sustatu delako. Emaitzak hobetzeko eta helburua lortzeko ezinbestekoa izango da jatorrian banatzea bultzatzea, ondoren birziklatzeko.



Biztanleko eta urteko hiri hondakinen sorkuntzak 2008an hasitako beheranzko joera jarraitu du, eta % 6ko hobekuntza izan du urte horren aldean. Etxeko hondakinen sorrerari dagokionez, hobekuntza txikia egon da, eta industriako eta merkataritzako hondakin asimilagarriei dagokionez, aldiz, hobekuntza handia egon da.

EAEko hiri hondakinen sorkuntza (Kg/biz) Espainiakoa baino txikiagoa da, eta 27ko Europar Batasunetik nahiko gertu da. 2009an, EAEn biztanleko 512 Kg hondakin sortu ziren; Espainian, aldiz, 547 Kg sortu ziren eta Europan batez beste 513 Kg.


28. konpromisoa: HIRI HONDAKINEN ZERO ISURIA

“Tratatu gabeko hiri hondakinik ez isurtzea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: HANDIA ★★★

2007 eta 2009 bitartean isuritako hondakinen ehunekoa ez zen ia aldatu, eta % 50etik % 49ra igaro zen (baina 2008an % 48an zegoen). Zabortegira aurretik tratatu gabe eramandako hiri hondakinen ehunekoa, oraindik ere, oso handia da eta ia ezinezkoa izango da hiri hondakinik ez botatzeko helburua, 2010erako jarritakoa, betetzea.

2.6 Hondakinak murriztea eta tratatu gabeko zero isuri



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

Gauzatutako jarduerak

2010eko bigarren hiruhilekoan EAEko Eraikuntzako eta Eraispenerako Hondakinak (EEH) kudeatzeko Dekretuaren zirriborroa bukatu genuen. Halaber, nabarmendu ere egin behar dugu bideetan birziklatutako hainbat agregakinen erabilera araupetzen duen araua argitaratu behar dugula udazkenean, EAEko Errepideetako Zoruen Mahainguruarekin eta, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Sailarekin eta Foru Aldundiekin elkarlanean.

Obretako hondakinak kudeatzeko eta obretan jardunbide egokiak izateko planak gauzatzeko gida bukatzea eta administrazio betebeharrak bete daitezzen laguntzeko tresna informatikoa garatzea faktore gakoak dira, Eraikuntzako eta Eraispenerako Hondakinaren erregulazio esparru berria bete dadin errazteko.

EAEko Hondakinak Koordinatzeko Organoari (Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta 3 Foru Aldundiek osatuta) dagokionez, 2010. urtean Hondakinaren Esparru Zuzentarauaren transposizioak dituen ondorioak aztertu ditugu eta arlo honetan datozen urteetan burutu beharreko lan plangintza finkatu dugu.

Azkenik, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei 2010ean eman beharreko diru laguntzen barruan diruz lagundutako proiektuen bidez hondakin arriskutsuen 11.839 tona/urteko eta hondakin ez arriskutsuen 10.873 tona/urteko murriztea edota birziklatzea lortu dugu.



2.7 Gure aniztasun biologikoari eustea

	7. HELBURUA GURE ANIZTASUN BIOLOGIKOARI EUSTEA	JOERA	2010ERA KO HELBURUA
			
<p>“Aniztasun biologikoaren galera geldiaraztea, lurreko eta itsasoko habitaten eta ekosistemen funtzionamendu jasangarria babestuta eta berreskuratuta.”</p>			
<p>29. konpromisoa: GALZORIAN DAUDEN ESPEZIEAK Galzorian edo egoera kritikoan dauden fauna eta flora espezieen populazioek 2007. eta 2010. urteen artean joera positiboa izatea lortzea.</p>			
<p>30. konpromisoa: BASO AUTOKTONOAREN AZALERA Baso autoktonoaren azalera 10.000 hektarea handitzea (baso inbentarioa), 2006. urtearekiko.</p>			
<p>31. konpromisoa: HEZEGUNEAK EAEko hezeguneen sektoreko lurralde planean bilduriko hezeguneetatik 50 hektarea leheneratzea.</p>			
<p>32. konpromisoa NEKAZARITZA-INGURUMEN NEURRIAK Bioaniztasuna babesteko nekazaritza-ingurumen neurriak gutxienez nekazaritza azalera erabilgarriaren % 10ean ezartzea lortzea.</p>			
<p>33. konpromisoa: NEKAZARITZA EKOLOGIKOA Nekazaritza ekologikoari eskainitako azalera handitzea, 1.200 hektareatarira iritsi arte.</p>			
<p>34. konpromisoa: BASOEI BURUZKO ZIURTAGIRIAK Ziurtagiria duten baso ustiapenen azalera 50.000 hektareatarira iritea.</p>			
<p>35. konpromisoa: ESPEZIE INBADITZAILEAK Espezie inbaditzaileen presentzia murriztea.</p>			
<p>36. konpromisoa: NATURA SAREA Natura 2000 Sareko espazioen artean, eskualde biogeografiko Atlantikoan dauden guztiak eta eskualde Mediterraneoan daudenen % 30 Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzea lortzea.</p>			
<p>37. konpromisoa: PAISAIA Euskal Autonomia Erkidegoko paisaia berezien eta nabarmenen katalogoko guneen % 10ek kudeaketako neurri egokiak izatea lortzea.</p>			

Bioaniztasunari buruzko konpromisoak neurtzea bereziki zaila da. Urtetik urterako bilakaerak ia hautemanezinak dira, aztergaietan aldaketan maiztasuna mantso samarra delako. Horri gaineratu behar diogu datuak lortzeko zuzeneko landa lanak garestiak direla.

2.7 Gure aniztasun biologikoari eustea

29. konpromisoa: GALZORIAN DAUDEN ESPEZIEAK

“Galzorian edota egoera kritikoa dauden fauna eta flora espezieen populazioek 2007 eta 2010 urteen artean joera positiboa izatea lortzea”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ERTAINA ★★

Basa eta Itsas Fauna eta Landaredian Arriskuan dauden Espezieen Euskadiko Zerrenda aldatu ondoren (EHAA, 2011-2-23), **flora** baskularrean espezie hauek daude arriskuan:

Galzorian dauden taxonak: ¹¹	58
Taxona kalteberak: ¹²	78
Taxon bakanak: ¹³	49
Interes bereziko taxonak: ¹⁴	20

EAEko Katalogoaren aldaketa hau oso handia izan da jasotako landare baskularretan, baina bere edukia ezin dugu zuzenean alderatu aurreko zerrendarekin, bien artean alde metodologiko handiak daudelako. Aldaketa egiteko funtsezko arrazoia, ezagutza sakontzeaz gainera, da mehatxatuta egon zitezkeela uste ziren espezie guztiak ebaluatzea izan da, Natura Babesteko Nazioarteko Batasunak ezarritako irizpideak eta mugak erabilita, espezie bakoitzari eragiten dion mehatxu maila zehazteko; aipatutako metodologia, egun mundu osoan estandartzat hartzen da. Hori dela-eta, indargabetutako katalogoarekiko alderaketak (irizpide subjektiboetan oinarrituta zegoen) ez du mehatxu mailaren bilakaera erakusten, irizpide objektiboagoak erabiliz berriro zehaztu dela baizik.

Taldea	Ebaluatutako espezie kopurua	Mehatxu txikiagoko kategoria batera igarotzen den ehunekoa	Mehatxu handiagoko kategoria batera igarotzen den ehunekoa
Onddoak	75	15%	65%
Landare baskularrak	226	11%	72%

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

Onddoei dagokienez, Natura Babesteko Nazioarteko Batasunaren metodologia erabilita, aurretiko Zerrenda Gorri bateko 75 espezieak ebaluatu ditugu; hauetatik 47 mehatxatuta daude, EAEn egon daitezkeen espezien % 1 alegia. EAEn topa ditzakegun likenen, liken-onddoen eta briofitoen zerrenda ere egiten ari gara, talde hauetako bakoitzaren espezie mehatxatuak ezagutu ahal izateko.

¹¹ Galzorian dauden espezieak: Eragiten dioten faktoreei garaiz aurre egiten ez bazaie, irauteko aukera gutxi eta betiko desagertzeko arriskuan den landare edo animalia espeziea.

¹² Espezie kaltebera: Bizi den egoeraren eragileei aurre egiten ez bazaie, galzoriko espezie edo habitataren eraldaketarekiko espezie sentibera motakotzat hartua izateko arriskuan den landare- edo animalia-espeziea.

¹³ Espezie bakan: eremu geografiko txikietan bizi diren edo eremu zabal batean sakabanatuta dauden populazio txikiak izatea ezaugarri duena, eta galtzeko arriskuan ez dagoena edo kaltebera ez dena.

¹⁴ Interes bereziko espezie: balio zientifiko, ekologiko edo kulturala edo oso ezaugarri bereziak izateagatik babesia eta arreta berezia merezi duen landare- edo animalia-espezieak, beti ere espezie sentibera, habitataren eraldaketaren mendeko espezie edo galzoriko espezie bezala sailkatu ez baldin badira.

¹⁵ Adibidez: aurretik galzorian sailkatuta zegoen taxona egoera kalteberara igarotzen da.

¹⁶ Adibidez: aurretik kalteberatzat hartutako taxona galzorian egotera igarotzen da.

2.7 Gure aniztasun biologikoari eustea

Faunaren espezien berrikuspena egiten ari gara, eta orain arte 80 espezieren egoera ebaluatu dugu. Horietako 25ek kontserbazio egoera okerragoa dute eta 14k, aldiz, egoera hobetu dute. Horri dagokionez, espezie batzuk, katalogoa egitean, ezezagunak ziren EAEn eta egun mehatxu kategoriaren batean daude lurraldea kolonizatzen ari diren arren. Era berean, bere garaian, ugalketa berrien zantzurik ez zegoen arren, galzoritza hartu genituen espezie batzuk desagertutza jo ditugu. Taldeen arabera, egoera hobetzen edo okerragotzen duten espezieen ehunekoa taula honetan jasota dago:

Taldea	Ebaluatutako espezie kopurua	Mehatxu txikiagoko kategoria batera igarotzen den ehunekoa	Mehatxu handiagoko kategoria batera igarotzen den ehunekoa
Hegaztiak	51	22%	25%
Narrastiak	11	18%	18%
Anfibioak	8	0%	62,50%
Arrainak	10	10%	50%

Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

Faunari dagokionez, Euskal Herriko Unibertsitateak emandako datuen arabera, kiropteroen egoerak nabarmen egin du okerrera azkeneko 10 urteotan, eta kolonia garrantzitsuak desagertu dira.

Faunaren gainerako taldeei dagokienez, 2011. urtean espezie gehienak ebaluatzen ari gara.

30. konpromisoa: BASO AUTOKTONOAREN AZALERA

“Baso autoktonoaren azalera 10.000 hektarea handitzea, 2006. urtearekiko (baso inbentarioa).”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: TXIKIA ★

Gaur egun, aipatutako adierazlearen datu eguneraturik ez dugu, informazioa 10 urtean behin eguneratzen baita. Azken baso inbentarioaren arabera, baso autoktonoaren azalera hazten ari da, baina hazkunde hori ez da aski 2010erako konpromisoa bete ahal izateko.

2008an EAEko zuhaitzez osatutako azalera 396.701 hektareakoa zen, EAEko azalera osoaren % 55. Basoen osarari dagokionez, Araban zuhaitzez osatutako azalaren % 78 baso naturalak dira, Bizkaian zuhaitzez osatutako azalaren % 75 espezie exotikoek betetzen dute, eta Gipuzkoan zuhaitzez osatutako azalaren % 63 baso sailek hartzen dute, eta baso azalaren % 34an baso autoktonoak daude.


2.7 Gure aniztasun biologikoari eustea

31. konpromisoa: HEZEGUNEAK

“Euskal Autonomia Erkidegoko hezeguneen sektoreko lurralde planean bilduriko hezeguneetatik 50 hektarea leheneratzea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ERTAINA ★★

2007 eta 2009 bitartean hezeguneen 60 hektarea leheneratu dira, 2010erako proposatutako helburua (50 hektarea) gainditu da, beraz.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

32. konpromisoa: NEKAZARITZA-INGURUMEN NEURRIAK

“Bioaniztasuna babesteko behararekin nekazaritza-ingurumen neurriak gutxienez nekazaritza azalera erabilgarriaren % 10ean ezartzea lortzea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ERTAINA ★★

2008. urtean 2007-2013 aldirako Landa Garapen Jasangarrirako Plan berria abiarazi genuen; plan honek bioaniztasuna babesteko behararekin loturiko nekazaritza eta ingurumen neurrietarako tresna berriak biltzen ditu. 2009tik informazioa biltzen ari gara plan berriaren ezarpena eta irismena ebaluatu ahal izateko. Datu horien arabera, 2009an nekazaritzako azalera erabilgarriaren % 2an nekazaritzako eta ingurumeneko neurriak ezarri ziren, hortaz, kopuru hori 2010erako planteatutako % 10eko helburutik urruti dago oraindik.

Programaren hedapenak, hasieran, aurreikusitakoa baino erritmo mantsoagoa du.

33. konpromisoa: NEKAZARITZA EKOLOGIKOA


“Nekazaritza ekologikoari eskeinitako azalera handitzea 1.200 hektareatarara iritsi arte.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: HANDIA ★★★

2007. urtean 1.061 hektarea zeuden nekazaritza ekologikora zuzenduta, eta 2010. urterako 1.770 hektarea zeuden, proposatutako helburua (1.200 hektarea) zabal gainditu da, beraz.

Azkeneko urtean (2010) joera positiboari eutsi zaio aurreko urtearen aldean, eta azalera 286 hektareatan handitu da; horregatik, era honetako nekazaritza, ingurumenak eskertuko duena, EAEn azkar errotuko delako itxaropen handia dugu.

2.7 Gure aniztasun biologikoari eustea



Iturria: ENEEK

2007 eta 2009 bitartean, Espainian % 1,7 handitu da nekazaritza ekologikora zuzendutako azalera. EB-27ko eta EAEko bilakaera askoz motelagoa izan da.

Nekazaritza ekologikora zuzendutako azalera nekazaritzako azalera erabilgarriarekin alderatuz gero, gure herrialdeko ehunekoa % 0,6koa da, Europatik (% 4,7) eta Espainiakotik (% 7) urruti.

34. konpromisoa: BASOEI BURUZKO ZIURTAGIRIAK


“Ziurtagiria duten baso ustiapenen azalera 50.000 hektareatarira iristea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ERTAINA ★★

2007 eta 2009 bitartean PEFC ziurtagiria (Programme for the Endorsement of Forest Certification-Basoen Ziurtapen Eskemak Bermatzeko Programa) duen baso azalera handitu da.

2009. urtean azalera hori 62.810 hektareakoa zen (aurreko urtean baino 9.023 hektarea gehiago), eta 2010eko helburua % (50.000 hektarea) 26 gainditu zen.

2009. urtean Euskadiko Basogintza Elkarten Konfederakundeak, “Baso Kudeaketa Jasangarria” irizpidea jarraituz, 9.543,80 ha egiaztatu ditu (bertan sartzen dira egiaztatutako azalera berria, eta lehendik egiaztatutakoa, baina zuzenduta). Egiaztatutako azalera berri gehienak ekoizpen pinudiak (intsinis pinua eta pagadiak) dira.



Iturria: Euskal Autonomia Erkidegoko Basogintza Elkarten Konfederazioa

2.7 Gure aniztasun biologikoari eustea

35. konpromisoa: ESPEZIE INBADITZAILEAK

“Espezie inbaditzaileen presentzia murriztea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: **HANDIA** ★★★

2010. urteko espezie inbaditzaileen kopuruak bere horretan iraun du 2009ko datuekin alderatuta. Hala, oraindik ere, 21 flora espezie inbaditzaile eta 49 fauna espezie daude oraindik.

36. konpromisoa: NATURA SAREA

“Natura 2000 sareko espazioen artean, eskualde biogeografiko Atlantikoan dauden guztiak eta eskualde Mediterraneoan daudenen % 30 Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) izendatzea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: **HANDIA** ★★★

Gaur egun, 22 dokumentu daude KBE atlantiko izendatzeko; horiek jendaurrean azaltzeko hainbat fasetan daude. Gainera, jendaurrean azaltzear dauden 9 gehiago daude, atlantikoak guztiak. Bestaldetik, 14 dokumentu prestatzen ari gara; atlantikoak zein mediterraneoak.

Eremu mediterraneo garbiak 7 dira, eta hauen gainean 2 dokumentu (% 29) prestatzen ari gara.

Adierazle honetan aintzat hartutako eremu guztiak kontserbazio bereziko eremu izendatzeko fasera iritsi ez bagara ere, lanak oso aurreratuta daude, eta bilakaera positibotzat jo dezakegu.

37. konpromisoa: PAISAIA

“Euskal Autonomia Erkidegoko paisaia berezien eta nabarmenen katalogoko guneen % 10ek kudeaketa neurri egokiak izatea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: **TXIKIA** ★

Dirudenez, egun katalogoko guneen % 10 inguruk baino ez dute kudeatzeko neurri egokirik; 2010. urterako konpromisoa bete da, beraz. Kontuan hartu behar dugu katalogoko gune batzuk bestelako tresna batzuek babestutako guneekin bat datozela, eta hauen barruan paisaia kontserbatzeko eta kudeatzeko neurri batzuk aurreikusita daude.

2.7 Gure aniztasun biologikoari eustea

Gauzatutako jarduerak

Bioaniztasuna babesteari dagokionez, Natura 2000 Sareko naturguneek ez zuten funtzionamendua araupetzeko kudeaketa planik onartuta; hauen artean Batasunaren Garrantzizko 52 Leku (BGL) eta Hegaztientzako Babes Bereziko sei Ereku (HBBE) daude, EAEko lurraldearen % 20 baino gehiago hartzen dutenak. Hori alde batera utzi gabe, EAEko Natura 2000 Sareko Batasunaren Garrantzizko Lekuak (BGL) Kontserbazio Bereziko Ereku (KBE) izendatzeko emandako bultzada erabatekoa izan da; hortaz, egun 22 eremu onartuta daude hasiera batean, eta jendaurrean azaltzeko fasea ere bukatu da. Horietaz gain, 9 eremu gehiagotan lan teknikoak eta kontsultakoak bukatu dira, eta laster hasiera batean onetsiko dira; azkenik, 14 eremu gehiagoren lan teknikoei ere ekin diegu. 2012an gainerako 13en lanak hasiko ditugu.

Halaber, **Urdaibaiko** Biosfera erreserbaren kudeaketari ere bultzada handia eman diogu; hala bada, Erabilera eta Kudeaketa Zuzentzeko Plana (EKZP) berritzeko prozesua hasi dugu gobernantza eta partaidetza areagotzeko asmoz, eta ingurumena leheneratzeko zuzeneko jarduera sorta berriari ekin diogu. Hona hemen batzuk: Okaren goi padura leheneratzeko proiektua (3,6 milioi euro), espezie inbaditzaileak desagerrarazteko Life programa (0,4 milioi euro) eta Barrutibasoko urmaela leheneratzea (0,2 milioi euro). Azken honi dagokionez, Kortezubiko Barrutibaso paduran (*Urdaibaiko* biosferaren erreserba) putzuak jartzeko proiektuari esker, gutxika habitata leheneratzeko baldintzak sortu dira, baita *Baccharis halimifolia* espeziearen hedapena saihesteko ere. Gauzatutako ekintzei esker, Natura 2000 Sarean sartutako eremua leheneratzeko oinarriak jarri dira.

Espezie inbaditzaileak ugaritzearen aurkako borrokatzeko garatutako proiektu nagusia LIFE 08NAT/E/000055 "Euskal Autonomia Erkidegoko estuarioetan garrantzi komunitarioko habitatak leheneratzea" izan da. Europako Erkidegoak finantzatu du eta itsasertz osoan eragin du. Proiektu honen bitartez, hain zuzen, *Baccharis halimifolia* espezie exotiko inbaditzailea desagerrarazi da Natura 2000 Sarearen babes bereziko hainbat tokitan, Urdaibai biosferaren erreserbaren itsasadarrean.

Espezie inbaditzaileak murrizteko hainbat ekintza ere garatu ditugu; adibidez, ipurtats amerikarra, apoarmatu exotikoak eta Ibizako sugandila (Gaztelugatxe) kontrolatzeko proiektuak.

Halaber, Txingudiko gunearen balioa nabarmentzeko hainbat jarduera ere hasi ditugu. Jardueron artean Plaiaundiko bisita azpiegiturak birmoldatu dira, eta ondoren Jaizubian ere jarraipena izango du; era berean, Hendaiaiko Abbadia Zentroarekin hitzarmena ere egin dugu. Aipatutako hitzarmenaren lehen jarduketa izango da inbertsio proiektua aurkeztea Interreg programa europarrean. Horren bitartez, elkar ulertzerako oinarriak finkatuko dira badia osoan etorkizun jasangarriagoa lortzeko aldera.

Horretaz gain, Euskadin Geoaniztasunaren politika ere ezarri dugu; hala bada, EAEko Geoaniztasunaren Estrategia egin dugu, Natur Parkeen sarean geoaniztasunaren eta geoturismoaren balioa nabarmendu dugu, Urdaibairako Probako Plana abiarazi dugu eta, azkenik, Deba-Zumaia EAEko lehen geoparkea izateko irmo egin dugu lan.

Ildo beretik, Espainiako eta Europako Naturaren Kontserbaziorako foro nagusietan sailaren kanporako hedapena indartu dugu espezieak eta korridore ekologikoak kudeatzeko planak koordinatzeko: Natura Ondare eta Bioaniztasun Kontseilua, Gizakia eta Biosfera Programaren Espainiako Batzordea (MAB), Biosferaren Erreserben Kudeatzaileen Kontseilua, EUROPARC Federazioa eta Natura Babesteko Nazioarteko Batasuna (UICN). Sailak Ingurumenaren Nazio Biltzarrean (CONAMA) ere berriro parte hartzen du.

Bioaniztasuna babesteko lanean gizarte osoak esku hartu behar du, hortaz, sailaren bioaniztasuneko proiektuetarako 2010eko **diru laguntzak** berbideratu dira, eta tokiko erakundeetan lehentasuna bioaniztasuna handitzea izan da jarduera proiektuen bidez: jarduerak babestu ditugu ibaiertzeko basoan, baso misto atlantikoan, hariztian eta pagadian; halaber, diruz lagundutako jardueren % 41ean espezie inbaditzaileak kontrolatzeko eta desagerrarazteko jarduerak ere badaude.

Horretaz gain, herritarrek gehiago parte hartzea ere sustatu dugu; hala, boluntarioen proiektuak diruz lagundu ditugu eta lurraldea zaintzeko hitzarmenetan jasota dauden GKEen jarduerak finantzatu ditugu.

2.7 Gure aniztasun biologikoari eustea






Ikerketarako programak ere egin ditugu gure bioaniztasunari buruzko ezagutza osatzen joateko, funtsean erakunde hauen bitartez: Euskadiko Bioaniztasun Zentroa (0,8 milioi euro urtean gutxi gorabehera), Aranzadi, IKT, Neiker eta UPV-EHU.

“EAEko komunitate eta espezie interesgarrien gaineko ezagutza” proiektuaren barruan, berriz, hainbat jarduera egin ditugu habitaten, floraren eta faunaren alorretan.

Era berean, proiektuak abiarazi ditugu EAEko Korridore Ekologikoen sarea diseinatzeko eta EAEko eta, osagarri modura, Espainiar Estatuko bioaniztasunari buruzko ezagutza mapa sortzeko.

EAEn Europako intereseko 71 habitat daude; hauetatik 3 itsas habitatak dira eta gainerakoak lehorrekoak (kostaldekoak, kontinentalak edo ur gezakoak). Europako Ingurumen Agentziak erabakitako metodologiari jarraiki, EAEko interes komunitarioko lurreko 68 habitatetatik 56 ebaluatzeko eta jarraitzeko lanak hasi ditugu.

2.8 Mugikortasuna kudeatzeko eredu berri baterantz joatea

	8. HELBURUA MUGIKORTASUNA KUDEATZEKO EREDU BERRI BATERANTZ JOATEA	JOERA	2010ERAKO HELBURUA
<p>“Pertsonen mugikortasun eskaerari oinez edo bizikletaz ibiltzeko eta garraio kolektiboa erabiltzeko neurriak sustatuta erantzutea. Merkantzien garraioan itsasoz eta trenbidez egindakoa sustatzea, errepide bidezkoa murrizteko.”</p>			
<p>38. konpromisoa: PERTSONEN MUGIKORTASUNA Bidaiarien banaketa modala motorrik gabeko garraiorantz bideratzea.</p>			
<p>39. konpromisoa: SALGAIEN GARRAIOA Salgaien garraioaren banaketa modala birbideratzea, trenbide bidezkoa, kilometroko tonatan, azalera garraio osoaren % 15 izan dadin. Hau da, errepide bidez gutxiago egin dadin eta trenbidez gehiago.</p>			
<p>Eusko Legebiltzarrak mugikortasunaren kudeaketa eredu berri baterantz egiteko helburu estrategikoarekin lotuta onartutako ebazpenak</p> <p>“Mugikortasuna beste eredu baten arabera kudeatzeko, Eusko Legebiltzarrak beharrezkotzat jotzen du ekintza ildo hau helburu estrategiko gisa finkatzea:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Eusko Jaurlaritzak, Garraio Sailaren bidez, gidatzeko jardunbide egokien eskuliburua egitea, auto ilarak, isurketak eta istripuen tasa murrizteko. 2. Erakunde eskudunek berotegi efektuko gas gutxiago isuriko dituzten garraibide jasangarriagoak izateko azterlan eta neurriak finantzatzera bultzatzea sektore pribatua. 3. Eusko Jaurlaritzak, udalek eta inplikaturako gainerako eragileek mugikortasun planak prestatzen jarraitzea 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan eta eremu industrialetan.” 4. Eusko Jaurlaritzak, Energia Dibertsifikatzeko eta Aurrezteko Erakundearen irizpideen arabera, ibilgailu ekologikoen zerranda prestatzea eta zerranda hori ibilgailu erosle guztien eskura jartzea. 5. Erakunde eskudunek erabilera partekatuko ibilgailu pribatuentzako errailak ezartzea bideragarria ote den aztertzea.” 			

38. konpromisoa: PERTSONEN MUGIKORTASUNA¹⁷

“Bidaiarien banaketa modala motorrik gabeko garraiorantz bideratzea.”


EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ERTAINA ★★

2007 eta 2009 bitartean banaketa modalaren joeran ez zen ia aldaketarik egon.

¹⁷ Adierazle hau ulertu eta interpretatzeko orduan, nabarmendu behar dugu EAEn ez dagoela urtebeteko edo periodikotasun txikiagoko pertsonen mugikortasun inkestarik.

Horrek adierazle honen balorazioak izugarri mugatzen ditu; hauek egiteko hainbat informazio iturritatik, zuzenean alderagarriak ez direnetatik, datozen datuak erabili behar baititugu. Hala, 2008ko datuak Eustatek eta Espainiako Estatistika Erakundeak familien eta ingurumenaren inguruan egindako inkestaren bitartez lortu ditugu. 2009. urterako aurretik aipaturako informazio iturriak eskura ez genituenek, Barne Ministerioaren Trafiko Zuzendaritza Nagusiaren 2009ko Estatistika Urtekari Orokorren datuak erabili behar izan ditugu. Iturri hauen bidez lortutako informazioa ezin da guztiz alderatu Eusko Jaurlaritzak egindako EAEko Mugikortasun Azterketen informazioarekin; ondorioz, adierazle honen kalitatea murrizten da, hortaz, kontu handiz interpretatu behar dugu, eta joera estimatuak ebaluatze bako baino ez dugu erabili behar.

2.8 Mugikortasuna kudeatzeko eredu berri baterantz joatea



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza Herrilan eta Garraio Saila, Herrizaingo Sailaren Trafiko Zuzendaritza Nagusia, Eustat

39. konpromisoa: SALGAIEN GARRAIOA


“Salgaien garraioaren banaketa modala birbideratzea, trenbide bidezkoa, kilometroko tonatan, azalera garraio osoaren % 15 izan dadin. Hau da, errepide bidez gutxiago egin dadin eta trenbidez gehiago.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: ERTAINA ★★

Sustapen Ministerioak egindako errepide bidezko Merkantzien Garraioaren Inkesta Jasangarriaren arabera, EAEn 2007., 2008. eta 2009. urteetan errepide bidez garraiatutako merkantzia bolumena hauxe izan zen: 117.683, 109.654 eta 96.477 mila tona, hurrenez hurren. Horrek esan nahi du urtetik urterako % 6,8ko eta % 12,0ko beherakadak egon direla, eta 2007tik 2009ra guztira % 18,8 murriztu dela.

Tren bidezko garraioari dagokionez (RENFE, FEVE eta EuskoTren), garraiatutako salgaien bolumena, 2007 eta 2009 bitartean, 2.431,6 mila tona murriztu zen; hau da, % 39,8ko beherakada pilatua egon da, eta urtetik urterako % 8,1eko beherakadak, berriz, 2007 eta 2008 bitartean, eta % 33,9koa 2008 eta 2009 bitartean.

Lurrazaleko salgaien garraioaren banaketa modalak ez du ia aldaketarik izan 2007 eta 2009 bitartean; hortaz, 2010erako helburua, urruti egoteaz gain, lortezina ere bada.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Garraio eta Herri Lan Saila

2.8 Mugikortasuna kudeatzeko eredu berri baterantz joatea

Espanian eta EAEn merkantzien lurreko garraioan trenbideak duen garrantzia Europakoa baino askoz txikiagoa da. Horrela bada, EAEn % 4koa da, Espainian bezalaxe, eta European (EB-27) % 19koa.¹⁸

Gauzatutako jarduerak

Garraioen arloan lehentasunezko helburua garraio eredu jasangarriagoa, lehiakorragoa eta eskuragarriagoa eta lurraldea gehiago egituratzen duena sustatzea da, garraio publikoaren kalitatea eta zerbitzua bultzatzeko, ibilgailu pribatuaren ordezkotako bitarteko gisa.

Saila funtsean Mugikortasun Jasangarriaren Lege proiektua lantzen ari da; lege honen bidez, asmoa da mugikortasun jasangarriarekin lotutako ekimen guztiei (egile publikoenei zein pribatuenei) tratamendu integrala eta sistematikotasuna ematea. Halaber, azpiegiturei dagokienez, ahaleginak trenbidean jarri dira, mugikortasun jasangarriagoa izan behar duenaren ardatz egituratzaile eta dinamizatzaile gisa, pertsonen zein merkantzien garraiorako; mugikortasun jasangarriagoa ingurumenaren ikuspegitik, bai eta ekonomiaren eta gizartearen ikuspegitik ere. Jarduera horien barruan hauek nabarmendu behar ditugu: abiadura handiko trenbidea (Euskal Y-a), Bilboko Alde Metropolitarrerako Metroa eta Donostialdeko Metroa, Bizkaiko eta Gasteizko Tranbiaren handitzeak, EAEn titularitateko tren azpiegitura hobetzea, bai eta zerbitzua hobetzeko beste jarduera batzuk ere.

Euskadiko garraio publikoaren eskaintzaren mapa egin dugu, aurrera begira ere jarraitu nahi duguna, eta urte bukaeran informazio hori sare digitalen bitartez ere emango dugu; horri esker, teknologia berriak erabili ahal izango ditugu zerbitzuen eskaintzaren informazioa zabaltzeko eta ezagutarazteko.

Interesa duten bestelako administrazioekin eta eragileekin batera, EAEko Txirrindulari Bideen Lurralde Plan Sektoriala idazten jarraitu dugu; planaren garapena bi lan mahaitan antolatuz dago: instituzionala eta elkarriketako. Diagnostikoa idatzi eta adostu dugu, eta egun aurrerapen aldia eztabaidatzen ari gara.

Era berean, bizikletak alokatzeko mailegu sistema sustatu dugu (Donostian jada erabiltzen da), Gipuzkoako lurralde historiko osoan zehar ezartzeko.

Salgaien garraioari dagokionez, errepide bidezko trafiko horri zati bat trenbideen edo portuen bidez egitea nahi dugu. Hartarako, baina, plataforma multimodal egokiak ezinbestekoak dira modu guztien arteko intermodalitatea ahalbidetzeko, eta trafiko jakin baterako modurik egokiena aukeratu ahal izateko.

Era horretan, Eusko Jaurlaritzak Sustapen Ministerioarekin protokoloa sinatu du Jundizko (Araba) eta Lezo-Gaintzurizketako (Gipuzkoa) plataforma multimodalak garatzeko. Plataforma hauek Estatuko nodo logistikoen sareko lehentasunezko nodoak izango dira.






Aurrekoarekin hertsiki lotuta, korridore atlantikoa ere garatuko da, Europaz gaindiko lehentasunezko garraio sareen artean egongo dena; horri esker, merkantziak garraiatu ahal izango dira mugan gelditu beharrik gabe, eta beraz garatzeko Europako funtsak ere lortu ahal izango dira.

Horretaz gain, lan espezifikoak ere egin ditugu merkantzien garraioa hobetzeko; hala nola, merkantzia arriskutsuen garraio fluxuak kontrolatzeko kamerak ipintzeko proiektua, edo aipatutako instalazio proiektu horren 2. faserako oinarri espezifikoak prestatzea.

¹⁸ Espainiako eta Europako (EB 27) balioak 2007koak dira, hauexek baita informazioa dugun azken urtea. EAEko datuak, berriz, 2009koak dira.



2.9 Lurraldearen erabilpen orekatua lortzea

	9. HELBURUA LURRALDEAREN ERABILPEN OREKATUA LORTZEA	JOERA	2010 ERAKO HELBURUA
<p>“Lurraldean jarduten duten sektore ezberdinen plangintza bateratua eta koherentea egitea, lurraldearen artifizializazioaren eta zatiketaren arazoak konpontzeko.”</p>			
<p>40. konpromisoa: HIRIGINTZA JARDUERЕК ERAGINDAKO ARTIFIZIALIZAZIOA Hirigintza jardueren ondorioz artifizializatzen den hektarea kopurua urtetik urtera murrizten joatea.</p> <p>41. konpromisoa: AZPIEGITURAK ERAIKITZEAK ERAGINDAKO ARTIFIZIALIZAZIOA Azpiegitura berriak eraikitzearen ondorioz artifizializatzen den hektarea kopurua urtetik urtera murrizten joatea.</p>	 	 	
<p>Eusko Legebiltzarrak lurzoruaren erabilera orekatua erdiestea helburu estrategikoarekin lotuta onartutako ebazpenak</p> <p>“Eusko Legebiltzarren aburuz, ezinbestekoa da lurzorua modu orekatuan erabiltze aldera honako jardunbide hauek helburu estrategiko izendatzea:</p> <p><i>Erakunde eskudunek udalerrian ekohiriaren kontzeptua sustatzea, bizilekuen gune berriak kontzeptu horren arabera eraiki daitezten.”</i></p>			

Artifizializatzea lurzoruaren kalifikazioarekin parekatzen da, erabiltzen diren datuen iturria Udalplan baita (Egitura Orokor eta Organikoari buruzko urteko argitalpena, eta EAEko lurralde osoko lurzorua kalifikatzea).

40. konpromisoa: HIRIGINTZA JARDUERЕК ERAGINDAKO ARTIFIZIALIZAZIOA

“Hirigintza jardueren ondorioz artifizializatzen den hektarea kopurua urtetik urtera murrizten joatea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: HANDIA ★★★

2009. urtean zehar, EAEEn 137 hektareak bizitegi lurzoruko kalifikazioa hartu dute jarduera ekonomikoetarako, ekipamenduetarako eta espazio libreetarako, hau da, 2008. urtean baino % 71 gutxiago. Hauen ostean, hirigintzako jarduerak guztira artifizializatutako azalera 48.170,82 hektareakoa da 2009. urtera arte.

2010. urtean, 339 hektarea kalifikatu dira, 2009. urtean baino % 148 gehiago, eta lurzoru mota honetako hektareak guztira 48.509,45 izan dira 2010eko abenduaren 31n. 2010. urtean hirigintzako jarduera txikia egon da, baina Donostiako Plan Orokor berria onartzeak bizitegiko lurzoru berrien, jarduera ekonomikoen eta sistema orokorren zuzkidura handia ekarri du; guztira 185.74 ha kalifikatu dira.


2.9 Lurraldearen erabilpen orekatua lortzea

Hala eta guztiz ere, aurreko edizioetan aipatu bezala, espazio libreetara zuzendutako azalerak ez du artifizializazioan eragiten, lurzorua ez delako inola ere eraldatzen. Datu hori espazio libreak kontuan hartu gabe aztertuz gero, oso bestelako egoera izango genuke:

2009an 214 hektarea gehiago daude, 137 ha gehiago espazio libreak aintzat hartuz gero (espazio libreen 77 hektarea desagertu direlako).

2010ean EAEn 203 hektarea gehiago daude, 338 ha gehiago espazio libreak aintzat hartuz gero.

Ondorioz, kalkulu hauetan espazio libreak sartzen ez baditugu, 2008 eta 2009 bitartean hirigintzako jarduerak artifizializatutako azalera 8 hektarea murriztu da (-% 3,6), eta 2009 eta 2010 bitartean ere 11 hektarea murriztu da (-% 5,4); hortaz, hartutako konpromisoa bete da.




Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

41. konpromisoa: AZPIEGITURAK ERAIKITZEAK ERAGINDAKO ARTIFIZIALIZAZIOA

“Azpiegitura berriak eraikitzearen ondorioz artifizializatzen den hektarea kopurua urtetik urtera murrizten joatea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: **HANDIA** ★★

2007 eta 2010 bitartean, azpiegiturak eraikitzearen ondorioz urtero artifizializatutako azalerak ondoko grafikoan ikus daitekeen bilakaera izan zuen.



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

2.9 Lurraldearen erabilpen orekatua lortzea

2009. urtean, azpiegiturak direla eta 116 hektarea artifizializatu ziren (aurreko urtean baino 9 hektarea gutxiago). Hortaz, 2009an, 2008arekin alderatuta, % 6ko beherakada egon zen.

2010ean, berriz, plangintzaren dinamika urria izan da, eta ez da zegoena baino lurzoru gehiago kalifikatu azpiegitura berrietarako; beraz, aurreko urtearen aldean, urteko gehikuntzaren % 100eko murrizketa egon da.

Azken urte hauetako bilakaerak ezarritako helburua betetzen du.

Gauzatutako jarduerak

Lurraldea Antolatzeko Zuzentarauak berrikustea arlo honetan egindako jarduera nagusietako bat izan da, eta berrikuspen honetan lurzoruaren artifizializazioa mugatzea funtsezkoa da, hiri trinko eta anitzaren eredu baten aldeko apustua eginda. Lurralde plangintzan klimaren aldaketa arintzearen eta egokitzearen aldagaia eranstea ere berrikuspen honen osagai nagusietakoa da.



2.10 Berotegi efektuko gas isurpenak mugatzea



10. HELBURUA: BEROTEGI EFEKTUKO GAS ISURPENAK MUGATZEA

JOERA

2010ERAKO
HELBURUA



“Berotegi efektuko gas isurketak murriztea, karbono gutxiko ekonomiarantz bideratuta.”

42. konpromisoa: BEROTEGI EFEKTUKO GAS ISURKETA Kyotoko Protokoloan araututako berotegi efektuko gasen isurpenak guztira 2010erako mugatzea, 1990eko % 14ko isurpen maila gaindi ez dezaten.



EUSKO LEWEBILTZARRAK BEROTEGI EFEKTUKO GAS ISURKETAK MURRIZTEA helburu estrategikoarekin lotuta onartutako ebazpenak

“Berotegi efektuko gas isurketak mugatzeko eta klima aldaketaren eragina leuntzeko, Eusko Legebiltzarrak beharrezkotzat jotzen du ekintza ildo hau helburu estrategiko gisa finkatzea:

Eusko Jaurlaritzak klima aldaketaren aurka borrokatzeko eskuliburua egitea eta herritarren artean banatzea. Eskuliburua horrek barne hartu beharko ditu erabilera eta ohitura kaltegarriak zein onuragarriak, eta kontsumo ohitura koherenteak sustatu beharko ditu.”

42. konpromisoa: BEROTEGI EFEKTUKO GAS ISURPENAK¹⁹

“Kyotoko Protokoloan araututako berotegi efektuko gasen isurpenak guztira 2010erako mugatzea, 1990eko % 14ko isurpen maila gaindi ez dezaten.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: HANDIA ★★ ★

2010. urte bukaeran argitaratutako EAEko berotegi efektuko gas isurien inbentarioarekin bat etorritik (2009):

2009an Euskal Autonomia Erkidegoko **jarduera sozioekonomikoekin loturiko berotegi efektuko gasen guztizko isurketa kopurua** 22,6 milioi tona CO₂ baliokidekoa izan zen. Horrek esan nahi du % 10eko beherakada egon zela 2008ko isurketekin alderatuta, eta % 6ko (% +6) igoera oinarri urteko isurketekin alderatuz gero. Ondorioz, indarreko planaren helburu azpitik 8 puntu gaude (+% 14).

Beherakada hori atzerapen ekonomikoko garaian gertatu da. Gainera, BPGak ere % 3,8 behera egin du (2008. urtearen aldean) eta CO₂/BPG ratioaren beheranzko joerari eutsi zaio.


Aipatutako inbentarioaren arabera, EAEn sektore hauek dira BEG gehien isurtzen dutenak: sektore energetikoa (isurpena guztien % 40), garraioa (% 23) eta industriakoa (% 22).

Energiaren, garraioaren eta industriaren sektoreetan gertatzen dena zehatz-mehatz aztertuz gero, hauxe ikusiko dugu: teknologiak 10 urtetan Euskadin sortutako elektrizitatearen (kWh) berotegi efektuko gas isurpenak erdira murriztu ditu; automobilek, eraginkortasunaren hobekuntzei esker, egindako Km bakoitzeko isurpena are gehiago murriztu dituzte; eta enpresek beren isurpena % 34 murriztu dituzte 1990etik.

¹⁹ EAEko Berotegi Efektuko Gas Isurketen 2009ko Inbentarioan informazio zehatzagoa dago


2.10 Berotegi efektuko gas isurpenak mugatzea

Hala ere, hau guztia iluntzen da etxeek gero eta energia gehiago kontsumitzen dutelako, eta ibilgailu partikularrak gero eta gehiago erabiltzen direlako. Lehenengoan hobekuntzak sendotzeko esparrua dago (enpresa gehienetan CO₂-ren prezioa internalizatzea, erabilgarri dauden teknika onenak aplikatzea eta erregaien kontsumo txikiagoko eta isurpena gutxiagoko estandarren araudia ibilgailuetan), baina ez da gauza bera gertatzen banakoei dagokienez; izan ere, hiritarren kontzientzia ez da nahikoa, eta herri administrazioak ere ez dira eredugarriak izaten.



*Iturria: Espainiako BEG indizea: 2009ko BEG isurketen inbentarioaren aurrerapena. Ingurumen, Landagune eta Itsas Ministerioa.

2009an EAEko berotegi efektuko gas isurketa indizea Klima Aldaketaren Aurkako Planaren helburua baino zortzi puntu beherago zegoen.




*Distantzia kalkulatzeko, helburuari (+% 14) oinarri urtearekiko urte bakoitzeko isurketa indizea kendu behar zaio (+ % 6 2009an).

2.10 Berotegi efektuko gas isurpenak mugatzea

2000. urtetik, biztanle bakoitzeko CO₂ isurpena behera egin dute urtetik urtera, eta guztira biztanleko 2 Gg CO₂ baino gehiago murriztu dira.

EAEEn biztanle bakoitzeko isurpena EB-15eko batez bestekoa baino handixeagoak dira. Europar Batasunean, asimetria handiak daude biztanleko isurritako berotegi efektuko gasi dagokienez. Era askotako faktoreek eragiten dituzte alde horiek: ekoizpen sistemaren egiturak, per capita errentak, kontsumituriko energia motak, urteko batez besteko tenperaturak, eta abarrek.



Iturria: Eurostat eta Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmena, Espainiarako eta EB-15erako, eta Eustat EAerako. Biztanleen datuak, xede urteko urtarrilaren 1ean (2009, EAerako, eta 2008, EB-15erako).

Gauzatutako jarduerak

2010. urtean Klimaren Aldaketaren Legearen Aurreproiektua egin genuen, eta jendeak parte hartzeko prozesua egin genuen (aldez aurretik parte hartze informaleko prozesua egin genuen EAeko administrazio publiko guztiek eta, ekonomia, zientzia eta gizarte sektoreak ordezkatzen dituzten bestelako eragileek gehiago parte hartzea bermatzeko). Lege hau prestatzeko agiriak, gainera, bitan aurkeztu genizkien Ingurumenerako Aholku Batzordeari eta Ingurumen Batzordeari. Klima Aldaketari buruzko Lege Proiektua 2011ko maiatzaren 24ko Gobernu Kontseiluan onartu da. Lege honen bidez, Euskadik lidergoa hartu zuen, eta bertan esku hartu behar dute EAeko administrazio publiko guztiek dagozkien lurralde eta eskumen esparrutik, baita Autonomia Erkidegoko gizarte eragile guztiek ere, bakoitzak duen ardura esparrutik, karbono gutxiko ekonomiaranzko aldaketan beren ekarpena egin dezaten.

Legearen arabera, ezinbestekoa da Klima Aldaketari buruzko Euskal Plan berria egitea (2013-2020 aldirako). Plana arintzeko eta egokitzeko neurri guztiak zehatz-mehatz biltzeko funtsezko tresna izango da. Indarreko planari dagokionez (2008-2012 aldiko Klima Aldaketaren aurka Borrokatzeko EAeko Plana), jarraipena egin dugu, eta ondorioztatu dugu aurreikusitako ekintzen % 62 baino gehixeago 2008-2010 aldian hasi direla eta, hauetatik, % 16 inguru bukatu direla.

2.10 Berotegi efektuko gas isurpenak mugatzea

Isurketen salerosketarako Europako erregimena, berriz, politika europarraren funtsezko tresna da berotegi efektuko gasak energia eta industria arloan murrizteari begira, eta isurpena sektore hauetan kostu txikienean murriztea bilatzen du. 2010ean, 2013-2020 aldian erregimen honetan parte hartuko duten instalazioen isurpena baimentzeko eta jarraitzeko prozesua hasi zen, eta horretarako, eraginda egon zitezkeen enpresak bilatzeko lanak, sektorekako bilerak eta eragindako instalazioak babesteko bilerak egin genituen. Azkenean, 10 izango dira egun erregimen honen barruan dauden 60ei gehituko zaizkien instalazioak. Ildo horretatik, 2008-2012 aldiaren aldean hainbat berritasun daude aldi berri honetarako: erregimenean sektore berriak eta gas berriak gehitzea, esleitzeko plan nazionalak desagertzea Europako sektoreko esleipenari bide emateko, eskubideak enkantean jartzea (doako esleipenaren ordez) sektore elektrikoan eta neurri handi batean karbono ihesik izateko arriskurik ez duten sektoreetan, eta benchmark edo Europako enpresa eraginkorrenetik eraketa erabiltzea eman beharreko doako eskubideak kalkulatzeko orduan.

Klima Aldaketari buruzko Espainiako Bulegoarekin eta gainerako autonomia erkidegoekin koordinazio bilerak egin genituen, isurpena salerosketari buruzko araudia aplikatzeari dagokionez, eta egokitzeari dagokionez.








Ingurumen eta Landa eta Itsas Inguruetako Ministerioaren Ingurumen Kalitateko Zuzendaritza Nagusiarekin ere hainbat topaketa izan genituen EAEko inbentarioa eta inbentario nazionala bat etor zitezten.

Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei 2010ean eman beharreko diru laguntzen barruan diruz lagundutako proiektuen bidez 180.676 tona/urteko murriztea lortu dugu.

Tokiko erakundeei emandako diru laguntzen barruan, halaber, airearen kalitatea hobetzeko eta berotegi efektuko gas isurpena zuzenean murrizteko 15 proiektu finantzatu ditugu; hala bada, proiektu hauek burututa, urtean, atmosferara 116.852 tona CO₂ gutxiago isuriko dira. Horretaz gain, 30.997 m² azalera leheneratu ditugu espezie autoktonoak landatzearen bitartez; eta hauen bidez urteko 19 tona CO₂ finkatu ahal izango dira.

Arintzeko tokiko proiektuen garapenaren barruan, gainera, izaera berritzailea eta integrala duten lau proiektu garatzen lagundu dugu Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE) dugun lankidetzaren barruan; proiektu hauei esker, atmosferara 764 tona CO₂ gutxiago isurtzea lortu dugu, eta energia eraginkortasuna handitzen lagundu dugu, baliabide gutxiago kontsumituta.

2.11 Klima aldaketara egokitzea

	11. HELBURUA KLIMA ALDAKETARA EGOKITZEA	JOERA	2010ERA KO HELBURUA
			
<p>“Klima aldaketara egokitzeko aurreikusitako eraginaren urrakortasuna txikitzeko neurriak hartzea.”</p>			
43. konpromisoa: KLIMA ALDAKETAREKIKO URRAKORTASUNA Euskal Autonomia Erkidegoak klima aldaketaren aurrean duen urrakortasuna murriztea.			
44. konpromisoa UHOLDE ARRISKUA DUTEN LEKUETAN ARTIFIZIALIZAZIOA SAIHESTEA Ahal den heinean, ehun urteko birgertatze aldiaren aurrean arriskua dagoen eta gaur egun garapenik ez duten lekuetan artifizializazioa saihestea.			
<p>EUSKO LEGEBILTZARRAK KLIMA ALDAKETARI EGOKITZEA helburu estrategikoarekin lotuta onartutako ebazpenak</p> <p>“Eusko Legebiltzarren aburuz, ezinbestekoa da klima aldaketari egokitze aldera honako jardunbideak helburu estrategiko izendatzea:</p> <p>Eusko Jaurlaritzak klima aldaketak Euskal Autonomia Erkidegoan eragingo dituen mota guztietako ondorioei buruzko ikerketa egitea eta horiei zabalpena ematea.”</p>			

43. konpromisoa: KLIMA ALDAKETAREKIKO URRAKORTASUNA


“Euskal Autonomia Erkidegoak klima aldaketaren aurrean duen urrakortasuna murriztea.”

EAEKO INFORMAZIOAREN KALITATEA: HANDIA ★★

2007 eta 2010 bitartean 16 ekintza egin genituen klima aldaketaren aurreko urrakortasuna murrizteko, ez dugu lortu, beraz, 23 ekintzako helburua betetzea.

2010ean 6 ekintza egin genituen: 3 azterlan egin genituen klima aldaketari eta ur azpiegiturretan duen eraginari buruz; klima aldaketaren eragin irizpideak txertatu genituen EAEko barnealdeko arroen plan hidrologikoan; eta K-Egokitzeko ikerketa proiektua berriro genuen, eta ozeanografoen eta mareografoen sarea, klima aldaketaren aldagaien jarraipena hobetzea dakarrena, handitu genuen.

2.11 Klima aldaketara egokitzea



Iturria: Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila

44. konpromisoa: UHOLDE ARRISKUA DUTEN EREMUETAN ARTIFIZIALIZAZIOA SAIHESTEA

“Ahal den heinean, ehun urteko birgertatze-aldien aurrean arriskua dagoen eta gaur egun garapenik ez duten lekuetan artifizializazioa saihestea.”

Ez dugu informazio kuantitatiborik adierazle honen gainean.

Gauzatutako jarduerak

2010. urtean Uraren Euskal Agentziak (URA) Uholde Arriskuaren Aurretiazko Ebaluazioa (UAAE) landu du Ekialdeko Kantauriko Mugape Hidrografikoan.

Uhalde arriskuaren arazoari heltzeko ikuspegi tradizionalaren arabera, nagusiki egiturazko neurriak planteatu dira, hala ere, neurriok, ingurumenari kalte handia egiteaz gain, ez dira nahikoak izan; hau da, defentsako neurriek arriskua murrizt dezakete, baina ez dute guztiz desagerrarazten. Herri Administrazioak bermatu behar du garapen berriak seguruak direla eta uholde arriskurik ez dutela, bai eta erriberak xede naturalerako erabiltzen direla, eraginkortasunez funtzionatzen jarraitzen dutela eta jarduera desegokien arrear babestuta daudela.

Uholde Arriskuaren Aurretiazko Ebaluazioaren helburua da uholdeekin lotutako arriskuak ebaluatzea eta, azterketa honetan oinarrituta, Herri Administrazio guztien eta gizartearen baterako jarduera lortzea uholdeek eragiten duten lurraldeko giza osasunean, ingurumenean, kultura ondarean eta jarduera ekonomikoan dituzten ondorio txarrak murrizteko.

Gainera, klima aldaketara egokitzeko K-Egokitzen ikerketa proiektuaren lehen fasea bukatu zen, Etortek programaren barruan, eta ikerketako beste aldi baten lehen urterako proiektua berritu zen, EAEko egokitze politiketan aplikatu daitezkeen emaitza zehatzak lortzeko helburuz. Aipatutako proiektuaren barruan, lehen fasearen emaitzak zabaltzeko lanak egin ziren, eta emaitzak azaltzeko saioak egin genituen gobernuaren hainbat sailekin, egokitzapen arloa bereziki nabarmenduta.

Klima aldaketaren kostuei dagokienez, uholde arriskua aztertzeko bi ekimen egin genituen. Horietako bat Bilboko itsasadarreko uholde arriskuei buruzkoa da (“EAEen klima aldaketaren inpaktuen kostuak baloratzeko metodologia. Bilboko adibidea”), eta beste bat Urola ibaiaren arroko uholde potentzial baten gaineko azterlanarekin lotuta dago

2.11 Klima aldaketara egokitzea

("Klima aldaketaren kostuak: uholde arriskua Urola ibaiaren arroan").

Horretaz gain, egokitzeari dagokionez, lantalde teknikoa eratu dugu Klima Aldaketaren Euskal Bulegoan; talde honek Klima Aldaketari buruzko EAEko Lege Aurreproiektua garatu zuen.

Halaber, tokiko esparruan klima aldaketari egokitzeko bi proiektu garatu genituen.

Lehenengo proiektua "Udaletarako Egokitze Programak Egiteko Gidaliburua" izan zen; aipatutako gidaliburuak udalek arlo honetan esku hartzeko duten gaitasuna laburbiltzen du, eta hainbat jarduera iradokitzen ditu udalerriek klima aldaketaren aurrean egokitzeko politikak aplikatu ditzaten. Bigarren proiektuak ("Hirigintza plangintzaren prozesuetan klima aldaketa arintzeko eta egokitzeko irizpideak txertatzea") "Hirigintzako plangintzan jasagarritasun irizpideak sartzeko eskuliburua" eguneratu eta osatzen du. Bi proiektu horiek ICLEI (Jasagarritasunaren aldeko Toki Gobernuen Nazioarteko Elkarte) 2010eko maiatza bukaeran antolatutako "1st World Congress on Cities and Adaptation to Climate Change Bonn" kongresuan aurkeztu genituen.

Azkenik, 2010eko laugarren hiruhilekoan, "Udal Plangintzan Arintzeko eta Egokitzeko Irizpideak Sartzeko Gidaliburua" egiteko lanak bukatu ziren; aipatutako eskuliburua "Jasagarritasunerako Hiri Ereduak" izeneko Tokiko Agenda 21en 8. jardunaldietan banatu da.



3. JASANGARRITASUNERAKO BEHAR DIREN BALDINTZAK LORTZEKO BIDEAN AURRERA

Ingurumen aldagaia beste politika batzuetan integratzea.

Indarrean dagoen araudia eta horren aplikazioa hobetzea.

Merkatua ingurumenaren alde erabiltzea.

Herritarrak gaitzea eta haiek ere arduradun bihurtzea.

Ikerketa, garapena eta berrikuntza ingurumenean.

Nazioarteko ingurumen lankidetzak.

3 Jasangarritasunerako behar diren baldintzak lortzeko bidean aurrera

2007-2010 aldirako Ingurumen Esparru Programak zehaztutako moduan, helburu estrategikoak eta konpromisoak dira euskal ingurumen politikaren muina. Nolanahi ere, helburu horiek betetzeko, beharrezkoa da gobernantzan bikaintasuna lortzea edo ondo gobernatzea. Apustu hori gizartearekiko kontratu gisa ulertzen da eta gardentasunean, parte hartzean, emaitzei lehentasuna ematean, kontuak ematean eta politika, plan eta programa publikoen arteko koherentzian dago oinarrituta.



Helburu bakoitzari lotutako konpromisoak betetzeko, zeharkako tresna batzuk behar dira, ekintza ildo batzuk zehazten dituztenak eta oinarria ematen dutenak. Hain zuzen ere horiek dira EAEn jasangarritasunerantz aurrera egiteko “beharrezko baldintzak” deiturikoak. Jarraian, beharrezko baldintza hauekiko bakoitzean aurrera egiteko informazioa zehatz-mehatz jasota dago.

3.1 Ingurumen aldagaia beste politiketan integratzea

Eusko Legebiltzarrak ingurumenaren aldagaia beste politika batzuetan integratzea helburu estrategikoarekin lotuta onartutako ebazpenak

“Eusko Legebiltzarrak ebatzi du EAEko 2007-2010 aldirako Ingurumen Esparru Programaren printzipio nagusiak honako jardunbideak izango direla:

- 1. Erakunde eskudun guztiek bete beharko dituzte 2007-2010 aldirako Ingurumen Esparru Programan zehaztutako konpromisoak, ezarrita dauden egutegiak errespetatuz.*
- 2. Ahaleginak egingo dira ingurumenaren alorrean garatu beharreko politika guztiek tokiko erakundeekin (udalak eta aldundiak) bat egiteko eta koordinatuta jarduteko –bereziki plan honetan jasota dauden politiken kasuan–, betiere erakunde bakoitzaren eskumenak errespetatuta.*
- 3. Eusko Jaurlaritzak ingurumen inpaktua murrizten duten enpresei zuzendutako laguntza orokorreko buruzko informazio katalogoa egingo du.”*

Ingurumen aldagaia beste politika batzuetan txertatzea III. Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoa ere bada, eta Eusko Jaurlaritzak 2010ean berau bereziki nabarmendu du. Era horretan, Jaurlaritzaren beste sail batzuek garatutako politikek eta tresnek ingurumen aldagaia barne hartzen dute.

Etxebizitza politika: Etxebizitza Sailburuordetza Etxebizitzaren aldeko Gizarte Ituna sustatzen ari da; itun honen barruan hauek sartzen dira: Etxebizitzaren Legea, 2010-2013 aldiko Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren Plan Zuzentzailea, eta 2010-2013 aldiko Etxebizitzaren eta Hiri Berrikuntzaren Plan Estrategikoa..

Etxebizitzaren aldeko Gizarte Itunak ingurumen aldagaia jaso du ardatz nagusien artean; hala, energia eraginkortasuna, baliabideen aprobetxamendu hobea eta eraikuntzaren bizi- ziklo osoan BEGak murriztea lortzea bilatzen du. Hori sendotzeko, halaber, eraikinen jasangarritasuna egiaztatzen duen sistema lantzen ari da.

Garraio politika: Herri Lan eta Garraio Sailburuordetza ingurumenean eragin txikiena duten garraiobideen aldeko apustu garbia egiten ari da. Hartarako, ekimen hauek lantzen ari dira, besteak beste: Mugikortasun Jasangarriaren Legea eta Mugikortasun Jasangarriaren Plana; 2001ean Donostialderako onartutako Trenbide LPSa aldatzea; Trenbideen Plan Estrategikoa; Sare Intermodal eta Logistikoko LPSa edo Txirrindulari Bideen LPSa.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak agiria eman zuen, ingurumen jasangarritasunaren txostenak izan behar zituen zabaltasuna eta xehetasun maila finkatzeko, ingurumen aldagaia Gipuzkoako Trenbideen Lurralde Plan Sektorialaren aldaketan txertatze aldera. Txosten honek proposamenak eman ditu ingurumen inpaktuaren baterako ebaluazio azterlana tresna baliagarria izan dadin, jarduketa berriak (bidaiarien eta salgaien garraioan edo garraio mistoan) ingurumen irizpideak kontuan hartuz zer neurritan planteatzen dituzten ebaluatzeko.

Halaber, Ingurumen Sailburuordetzak 2. Errepide Planaren Ingurumen Inpaktuaren Baterako Ebaluazioaren behin betiko txostena ere egin zuen. Txosten honek ebaluazio prozesua, ingurumen jasangarritasuneko txostena eta bere kalitatea aztertzen ditu, eta egindako kontsulten emaitza ebaluatzen du, baita inpaktu esanguratsuak kontuan nola hartzen diren ere.

Industria eta energia politika: Industria eta Energia Sailburuordetza 2020. urteari begirako Energia Estrategia lantzen ari da. Oinarri izango dituen printzipioen artean karbono urriko ekonomia lortzeko sistema energetikoa garatzea dago; hala, berriztagarriak ahalik eta gehien zabalduko dira, ingurumena zainduta eta petrolioarekiko mendekotasuna ahalik eta gehien murriztuta.

3.1 Ingurumen aldagaia beste politiketan integratzea

2020ko Energia Estrategia honen ingurumen garrantzia dela-eta, sailak ingurumen eragina ebaluatzeko agiri teknikoan edukiari eta irismenari buruzko gomendio zenbait bildu zituen agiri batean. Bertan bere aplikazioak ingurumenari ekar diezazkizoketen ondorio esanguratsuak identifikatu, ebaluatu eta deskribatu beharko dira, baita arrazoizko beste aukera batzuk ere (bideragarriak teknikaren, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik), betiere aipatutako estrategiaren helburuak eta lurralde esparrua aintzat hartuta.

2010ean Energia Eolikoaren 2. Lurralde Plan Sektorialaren ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratua lantzen hasi ginen.

Lurralde plangintzaren politika: Lurralde Plangintzaren eta Uren Sailburuordetza Lurralde Antolamendurako Arauak berrikusteko prozesuan murgildurik dago. Aldaketa honen oinarrietako bat lurzoruaren artifizializazioa mugatzea da, eta jardueren gidari nagusia hiri trinkoaren kontzeptua izango da. Halaber, Lurralde Antolamendurako Arauek lurralde plangintzan klima aldaketa arintzeko eta egokitzeko irizpideak gaineratu dituzte.

Horretaz gain, 2010eko azaroan Nekazaritza eta Basogintzako LPSa behin-behinean onartu zen; plan honen helburu nagusien artean nekazaritza eta basogintzako lurzorua beste erabilera batzuen aurrean babestea eta nekazaritzaren eta ingurumenaren babesa bateragarri egitea daude.

Lurzorua babesteko politikak: Kutsatutako lurzoruen kudeaketan zuzeneko harremana duten hiru esparru landu dituzte batez ere. Lehenengoa, hirigintza, EAEn politika honi ekitean, lurzoruen kalitatea berreskuratzea ahalbidetuko zuen motortzat hartu zen. Aurreikuspena bete da, eta arlo honetan egindako jarduerak lagundu dute hirigintzako tresnetan ingurumen irizpideak txertatzen. Lan hau, hasiera batean, kasuak kasu egin da, eta 2010ean lurzoruen hirigintzako eta ingurumeneko araudiak aplikatzeko orduan sortzen diren zailtasunak sistematikoki identifikatzeari ekin diogu; prozesu honen amaieran, irtenbideak proposatuko ditugu hirigintza arloan eskumenak dituzten administrazioekin adostu ondoren. Bigarren integrazio esparrua lurpeko uren babesa da. Esparru hau Uraren Euskal Agentziarekin (URA) elkarlanean lantzen dugu, biek ala biek lurpeko urak kalitate txarreko lurzoruetatik etorritako kutsaduratik babesteko helburua baitugu. Era berean, Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioarekin (ELIKA) elkarlanean, lurzoruaren kalitateak nekazaritzako eta abeltzaintzako produktuen segurtasunean izan dezakeen eragina aztertzeari ekin diogu.

Tokiko jasangarritasunerako politika: Udalei dagokienez, Udalsarea 21 jasangarritasunerako udalerrien euskal sarea baliabide ekonomikoez, teknikoez eta giza baliabideez hornitu dugu, eta 2010ean 188 udalerrik EAeko jasangarritasunaren aldeko konpromisoarekin bat egin zuten. Halaber, urte horretan Uraren Euskal Agentzia eta Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumo Saila ere Udalsarea 21en sartu ziren; horrek udal eskariei erantzuten die eta lan aukera handiak zabaltzen ditu osasunean eta ingurumenean, hain lotuta dauden arloetan; alegia.

2010ean ere sare honen 2010-2015 aldirako Plan Estrategikoa egin genuen. Plan honek xedea eta helburuak biltzen ditu, eta berau idazteko orduan partaidetza prozesu zabala egon zen. Gainera, 2009ko EAeko Tokiko Jasangarritasun Txostena editatu genuen; txostenak jasangarritasun arloko tokiko politika publikoak eta 89 udalerritako tokiko ekintza planen aurrerapen maila ebaluatzen ditu, baita EAEn ezarritako tokiko jasangarritasun adierazleen bilakaera ere.

Azkenik, Eusko Jaurlaritzak ingurumena hobetzeko pertsona pribatuei, udalei eta foru aldundiei emandako diru laguntza programen barruan, laguntza hauek banatu dira:

EAeko udalei, mankomunitateei eta bestelako tokiko erakundeei emandako diru laguntzak, 7.100.000 euroko aurrekontua dutenak 2010ean; deialdi honetan 95 tokiko erakundek parte hartu dute eta 118 proiektu diruz lagundu dira:

3.1 Ingurumen aldagaia beste politiketan integratzea

2.396.672 euro zuzendu ziren airearen kalitatea hobetzeko, baita berotegi efektuko gas isurketak zuzenean murrizteko ere; 2.750.142 euro aniztasun biologikoa hobetzeko proiektuetarako, eta 1.353.186 euro tokiko titularitate publikoko lurzoruaren kalitatea aztertu eta leheneratzeko.

Industria aurriak eraisteko proiektuak idazteko eta/edo gauzatzeko 2010. urterako laguntzak (1.280.000 euroko aurrekontua).

Paperean udal toponimia mapak egiteko 2010eko deialdia, 475.030 euro.

Irabazteko asmorik gabeko elkarteei diru laguntzak ematea 2010. urtean ingurumen arloan hezkuntza, informazio, parte hartze, prestakuntza, boluntariora eta sentsibilizazio jarduerak egin ditzaten; 550.000 euroko aurrekontua.

Urdaibai zaintzeko akordioak; 180.000 euro.

3.2 Indarrean dagoen araudia eta horren aplikazioa hobetzea

II. Ingurumen Esparru Programak ingurumen babes handia bermatzen duen, aplikazio eraginkorra duen eta eraginkortasunez betetzen den legeria edukitzeko beharra azpimarratzen du.

2010. urtean Ingurumena Babesteko Lege Orokor berriaren lehen zirriborroa landu dugu. Hasiera batean indarreko 3/98 Legea aldatzea aztertu bazen ere, aldez aurretik egindako lanak agerian utzi du ezinbestekoa zela lege berria egitea, indarreko aldaketatik haratago; batetik, nazioko eta nazioarteko araudira egokitu beharreko gaien zabaltasunagatik eta, bestetik, hobekuntza asko egin behar zirelako garai hauetara egokitzeko.

Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratuaren Dekretuaren proiektu berria egiten ari gara; proiektu hori esku hartzen duten eragileekin egindako lan jardunaldietan aurkeztu dugu eta Foru Aldundiekin eta Eudelekin ere landu dugu; halaber, Ingurumen Batzordean eta Ingurumenerako Aholku Batzordean ere aurkeztu dugu. Dekretu honen asmoa da oraingo araudiak sustatzaileei eta administrazioei eragiten dien segurtasun juridikorik eza amaitzea da, araudia Europako zuzentarauaren eta Espainiako araudiaren aurkakoa baita. Ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio bateratua egiteko prozedurei segurtasun juridikoa ematen zaien aldi berean, prozeduraren eraginkortasuna handitzen da eta izapideak sinplifikatzen dira.

Halaber, atmosfera kutsa dezaketen jardueri buruzko dekretu proiektua ere aurkeztu dugu. Aipatutako proiektua eragindako sektore ekonomikoekin eta EUDELekin aztertu dugu eta, Ingurumen Batzordean eta Ingurumenerako Aholku Batzordean aurkeztu dugu; halaber, jendaurrean ere azaldu dugu. Dekretu honen bidez honako xede hau lortu nahi dugu: aurretiko baimena emateko prozesua sinplifikatzea -ingurumen kontrolerako erakundeen figura sartuta eta eragin txikiena duten jardueretarako jakinarazpen erregimena finkatuta-, jarduera ekonomikoetan eta ingurumena kontrolatzeko erakundeetan segurtasun juridiko handiagoa ezartzea - horretarako, Jarraibide Teknikoak egitea- eta tele-izapidetza barneratzea.

Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arratza Sailak lurzoruaren kalitatea adierazteko prozeduran hobekuntzak egiteko ekintzak gauzatu ditu, hala, balioztatutako dokumentuak Ingurumen Sailburuordetzari entregatzeko epea murriztuko dugu. Gainera, lurzoruak ikertzeko eta leheneratzeko egiaztatuta dauden teknikariek lan egin dugu txosten teknikoen kalitatea hobetzeko, kontrol beharrak murriztearren.

Lurzoruaren kutsadura babesteko eta prebenitzeko 1/2005 Legeari dagokionez (arloan honetan ekintzak araupetzen dituen baita): ezarpen maila arrakastatsua dela jo dezakegun arren, aplikazioaren lehenengo urteetako esperientziak funtsezko hainbat alderdi identifikatzera eraman gaitu, eta hauek hobetzen baditugu helburuak lortzen nabarmen lagunduko du. Horregatik, lege hau aldatzea erabaki genuen; aldaketa honen bidez (2010ean aldaketaren bigarren fase sakonagoari ekin diogu), funtsean administrazioa sinplifikatu nahi dugu eta, testuan esperientziaren arabera errealistagoak eta egun indarrean dagoen araudia baino praktikoagoak diren egikerak txertatu nahi ditugu.

Eraikuntzako eta eraisketetako hondakinei dagokienez, administrazio prozesua hasi dugu "Eraikuntzako eta eraisketetako hondakinak kudeatzeko Euskal Dekretua" eta "Birziklatutako agregakinetatik etorritako materialak erabiltzea araupetzen duen agindu teknikoa" izapidetzeko. Agindua garatzeko EAeko Errepideetako Zoruen Mahainguruare laguntza izan dugu. Garraio Sailak eta Foru Aldundiek eratutako erakunde honek frogako esperientzia garatu du bi errepide zatitan, eta esperientzia baliagarria izan da agindua baliozkotzeko.

Azkenik, eta dagokion atalean azaldu bezala, 2010ean Klima Aldaketari buruzko Legearen aurreproiektua egin dugu, parte hartzeko eta erkatzeko prozesu zabala burututa.

3.3 Merkatua ingurumenaren alde erabiltzea

Eusko Legebiltzarrak MERKATUA INGURUMENAREN MESEDETAN ERABILTZEA baldintzarekin lotuta onartutako ebazpenak

“Berrikuntzari eta merkatuari dagokienez, Eusko Legebiltzarrak hauxe eskatu dio Eusko Jaurlaritzari:

- Gure kontsumo ohiturei dagokienez, hazkunde ekonomikoaren eta ingurumen inpaktuen arteko lotura apurtuko duten beste formula batzuk bilatzea.

- Merkatuko tresnetan eta berrikuntzan gehiago sakontzea, kontsumo ohiturak ingurumena gehiago errespetatzen duten ereduetarantz bideratzeko.”

Erosketa Publiko Berdea bultzatzea merkatua ingurumenaren alde jartzeko funtsezko alderdietako bat da. EAEko administrazioaren eta sektore publikoaren kontratazio prozesuetan gizarte eta ingurumen irizpideak eta bestelako politika publikoak txertatzeko Gobernu Akordioaren ingurumeneko alderdien jarraipena amaitu dute Eusko Jaurlaritzako sail eta erakunde publiko guztiak. Jarraipenak hainbat ondorio ekarri ditu. Lehenik, arlo honetan administrazio guztiak laguntzeko tresnak ezartzeko beharra ikusi dugu, programa espezifiko batez lagunduta. Bigarrenik, ikusi dugu 2010ean lizitazioen % 41ek ingurumen irizpideak txertatu dituztela. Azkenik, ekonomikoki kontratazio osoaren % 33 dela ikusi dugu.

Gizarteari ezagutza helarazteko ondorioari jarraiki, lhoberen web orrian eskuragarri daude 18 produktu eta zerbitzu kontratatzeko laguntza irizpide eta material guztiak; gainera, identifikatutako jardunbide egokien deskribapena eta ingurumen irizpideak jasotzen dituzten pleguen ereduak kontsulta daitezke.

Erosketa eta kontratazio publiko berdeari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailarekin zein Justizia eta Herri Administrazio Sailarekin lan mahaia sortzea funtsezkoa izan da. Hain zuzen ere, bi sail hauek eragin handia dute Eusko Jaurlaritzaren osoaren eta horri loturiko erakundearen kontratazio eran.

Halaber, nabarmendu behar dugu arlo honetan biziki garrantzitsua dela eskaintzaren eta eskariaren arteko koordinazioa egotea produktuko kategorietan irizpideak ezartzeko. 2010ean lan mahaia ezarri ditugu aholkularitzako eta urbanizazio obretarako irizpideak lantzeko.

2010ean 100 enpresa handi, ETE, agentzia eta enpresa elkarte baino gehiagoren eskaria lortu dugu, eta horri esker Ekoeraginkortasuna Euskal Enpresan 2010-2014 Programa bezeroen beharrei kasu eginez diseinatu ahal izan dugu. Hala, ingurumena lehiakortasun faktore izan dadin honako hau ezinbestekoa da: merkatuari aurrea hartzea, finantzaketa lortzea, sareko lana, adituen orientazio teknikoa eta errekonozimendua.

2010ean ekodiseinuan eta ingurumen ikuspegitik jasagarria den etxegintzan 15 eskuliburu tekniko berritzaile baino gehiago editatu ditugu. Horiek sektoreko enpresen aldetik harrera ona izan dute. Aipatutako eskuliburuak eta enpresako 45 jardunbide egoki aurkeztu ditugu “IV Environmental Product and Building Innovation” biltzarrean.

Euskadin 52 enpresa baino gehiagok EMAS arauaren ziurtagiria dute; Saila ziurtagiri estandar hau ezartzea sustatzen ari da, ingurumena kudeatzeko sistemetan EAEn erreferentzia izan dadin. Ildo horretatik, enpresetarako diru laguntzen programak diruz laguntzen dituen ekimenen artean EMAS oinarri hartuta ingurumena kudeatzeko sistema ezartzea eta ziurtatzea daude; halaber, diruz laguntzen diren programak eskuratu ahal izateko merezimenduztat hartzen da (puntu gehiago ematen ditu) EMASean oinarritutako oinarri duen ingurumena kudeatzeko sistema ezarrita edukitzea, eta Saila EMAS enpresetarako administrazio hobariak ere jasotzen ari da lantzen ari den araudi aldaketetan. Gainera, UNE 150301 Ekodiseinu arauaren arabera egiaztatutako 41 euskal enpresa ere badaude; 236 Ekoskan Arauaren arabera, eta 1.030 UNE-EN-ISO 14001 arauaren arabera.

2010eko deialdian, enpresei ingurumena babesteko inbertsioak egiteko emandako diru laguntzak 2.900.000 eurotik gorakoak izan ziren, eta EAEko 122 enpresak jaso zituzten. Diruz lagundutako proiektuei esker, ingurumen hobekuntza nabarmenak lortu ahal izan dira, eta beren emaitzak eragina duten Helburu Estrategikoetan jasota daude.

3.4 Herritarrak gaitzea eta haiek ere arduradun bihurtzea

Azken hau jasagarritasuna lortzeko ezinbestekoa da, horregatik administrazioak neurriak hartu ditu bere jarrera eredugarria izan dadin. Hala, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoaren ingurumen eredugarritasunaren 2010eko txostena argitaratu da. Horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoko zenbait esparrutako ingurumen jardunbide egokienak jasotzen dira, hala nola: erosketa publiko berdean, ingurumen kudeaketan, etab.

Halaber, Eskolako Agenda 21 Proiektuaren bidez herritarrak kontzientziatzeko bi diru laguntza eman ditugu: 1.096.162 euro (milioi bat eta laurogeita hamasei mila ehun eta hirurogeita bi euro) eta 600.000 euro (seiehun mila euro). Bigarren diru laguntza EAEko udalak, mankomunitateak eta tokiko bestelako erakundeak diruz laguntzeko programaren barruan dago, eta 65 proiektu ditu Tokiko Agenda 21en eta Eskolako Agenda 21en arteko koordinazioa sustatzeko.

Udalsarea 21en barruan, halaber, herritarrek Tokiko Agenda 21en parte hartzeko prozesuak ekonomikoki zein teknikoki laguntzen jarraitu dugu, funtsezko tresna baita politika publikoetan gardentasuna eta herritarren partaidetza handia sustatzen dituen gobernantza bultzatzeko.

Era berean, 2010ean Auzolan 21 "Herritarren erantzunkidetasuna klima aldaketaren aurkako borrokan" garatu dugu. Auzolan 21 hau klima aldaketari aurka egiteko konpromiso garbia duten hamahiru udalerriri bultzada emateko jaiotako da, baita herritarrak beren erantzukizunaren zatiaz jabeazten laguntzeko, eta arlo horretan ekintzak egitea akuilatzeke ere. Azken horretarako, jokabide ohitura berriak hartzea eragin nahi da.

Azkenik, biziki garrantzitsua denez, Udalsarea 21en barruan lan egin dugu Komunikazio Ekitaldea osatzen; hala bada, tresna eta teknika berriak aurkeztu ditugu komunikazio jarduerak zuzen planifikatu eta ondoren garatzeko, kalitate eta sormenaren ikuspegitik betiere.

3.5 Ikerketa, garapena eta berrikuntza ingurumenean

Eusko Legebiltzarrak INGURUMENAREN ARLOAN IKERKETA, GARAPENA ETA BERRIKUNTZA BULTZATZEA baldintzarekin lotuta onartutako ebazpenak

“Ingurumen arloko ikerketari eta berrikuntzari dagokienez, honakoa eskatu dio Eusko Legebiltzarrak Eusko Jaurlaritzari:

- *Ingurumen arloko ikerketa eta berrikuntza sustatzea, Euskal Autonomia Erkidegoa Europako puntako eskualdeen artean egon dadin.*
- *Bioaniztasunaren arloan ezagutza, ikerketa eta berrikuntza bultzatzea, EAE nazioarteko erreferente bihurtu dadin.”*

Gainera, klima aldaketara egokitzeko K-Egokitzeko ikerketa proiektuaren lehen fasea bukatu da, Etortek programaren barruan, eta ikerketako beste aldi baten lehen urterako proiektua berriro zen, EAEko egokitze politiketan aplikatu daitezkeen emaitza zehatzak lortzeko helburuz.

2010ean ERAnet EcoInnova proiektua diseinatu eta abiarazi dugu; proiektu honek Europako herrialde nagusien ekoberrikuntzako I+G+B proiektuak koordinatzen ditu.

Ingurumeneko ikerketa, garapen eta berrikuntza arloan emandako diru laguntzei dagokienez, hauek nabarmendu behar ditugu: bioaniztasuna ikertzeko proiektuetarako 150.000 euro (ehun eta berrogeita hamar mila euro), eta 2010ean eraztunak ipintzeko Aranzadiri emandako 151.000 euro (ehun eta berrogeita hamaika mila euro).

3.6 Nazioarteko ingurumen lankidetzaz

Nazioarteko lankidetzaz, neurri handi batean, klima aldaketaren arloan izaten da; hain zuzen, Pirinioetako Lan Erkidegoan parte hartze aktiboa dugu. Europako Kontseiluaren laguntzaz Erkidego hau 1983an sortu zen Pirinioei mugaz gaindiko lankidetzaz egitura emateko, Europako beste muga batzuetan bezalaxe. Bertan Frantziako 3 eskualdeek (Akitania, Midi-Pyrénées, Languedoc-Roussillon), Espainiako 4 Autonomia Erkidegok (Katalunia, Aragoi, Nafarroa, Euskadi) eta Andorrako Printzerriak parte hartzen dute. 2010ean Klima Aldaketaren Pirinioetako Behatokia abiaraztea erabaki zen, eta berau zehaztu eta abiarazteko lanean esku hartu dugu.

Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenaren Aldeen 16. Konferentziaren eta Kyotoko Protokoloaren Aldeen bilera gisako Aldeen 6. Konferentziaren "Kyotoko Protokoloaren Aldeen bilera gisa" emaitzak hainbat erabakitan jaso ziren; erabaki horiek, hain zuzen, Cancuneko akordioa osatzen dute, eta bi prozesuen arloan (Epe Luzerako Lankidetzaz eta Kyotoko Protokoloa) erabakiak jasotzen dituzte. Akordioak, gainera, negoziazio atal guztietan aurrerapenak jasotzen ditu: arintzea, REDD+ (basoak deforestatzeagatik eta degradatzeagatik isurpenak murriztea), egokitzea, teknologia eta finantzaketa. EAEk parte hartu zuen The Climate Groupen eta Garapen Jasangarrirako Eskualde Gobernuen Sareak (nrg4SD) antolatutako ekitaldi paraleloetan.

Halaber, Europako Ingurumeneko Agentzien Sarearen klima aldaketara egokitzeko interes taldearen bileran ere parte hartu genuen. Bilera horretan, herrialdeetako eta eskualdeetako planen eta programen aurrerapenak azaldu zituzten.

Lurzorua babesteko arloan, nazioarteko lankidetzaz funtsezko osagaia da esperientziak trukatzeko orduan; izan ere, gaiak antzekotasun handiak ditu toki guztietan. Nazioarteko lankidetzaz bi ekintza nabarmendu beharko genituzke: Europar Batasuneko estatuen eta eskualde batzuen administrazio ordezkarien sare informala den Common Forum on Contaminated Sites deritzon kide gisa parte hartzea, eta HOMBRE (Holistic Management of Brownfield Regeneration) proiektuan aditu gisa esku hartzea. Azken proiektu honen xedea da estrategiak diseinatzea arlo honetan "brownfiel" deitutakoen kudeaketa osoa egiteko; hauek, hain zuzen, hutsik edo gutxiegi erabilia dauden lurak dira, leheneratzeko ekintza bereziak behar dituztenak. Proiektu honetan Herbehereetako, Alemaniako, Britainia Handiko, Frantziako, Italiako eta Poloniako profesionalak parte hartzen dute. Era berean, nabarmendu behar dugu EAEk Autonomia Erkidegoen teknikarien sare batean ere parte hartzen duela; sare honek esperientziak trukatzeko ere bilatzen du, baina oraingoan oinarritzako legeria bera eta, ondorioz, garapen premia berberak dituzten eremu geografikoan.

Bioaniztasunari dagokionez, berriz, nazioarteko lankidetzaz, gehienbat, "European Nature Conservation Agencies ENCA." Sare honen barruan legeak ezartzeko eta erabaki publikoak hartzeko ezagutza tekniko eta zientifikoa sortu eta ematen dituzten estatuko agentziak biltzen dira. ENCA sarea 2008. urtean sortu zen Alemaniako gobernuaren ekimenez, eta Europar oso eragin handia du: Europako Batzordeak aholkularitza eskatzen dio, ENCA sareko agentziek ezagutza eguneratua baitute bioaniztasunari buruzko gai teknikoaren gainean. Bioaniztasunaren ezagutza eguneratuta edukitzeko, funtsezkoa da sare honetan aktiboki parte hartzea, bai eta ezagutzaren eta informazioaren zuzeneko iturri pribilegiatuetara jo ahal izateko ere; hori oso baliotsua da lanaren kalitatea bermatzeko.

Azkenik, Euskadik Ingurumen Agentzien Europako Sarean ere parte hartzen du. Sare honen helburua da ekintza publiko eraginkorragoa lortzea, dela ingurumen arriskuei aurrea hartzeko, dela klima aldaketara egokitzeko, dela ingurumen legeria hobetu eta herritarrak sentsibilizatzeko, besteak beste. Hain zuzen, Europar Batasunaren lehendakarietzaz Espainia arduratzen zenean, 2010eko martxoan sarearen 14. bilera Bilbon izan zen, Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioak gonbidatuta, eta Eusko Jaurkitutako Ingurumen Sailak lagunduta.


**4. ONDORIOAK
ETA JOERAK.
2007-2010 ALDIAREN
AMAIERA ETA
2011-2014 ALDI
BERRIAREN HASIERA**

4.1 Emaizten ebaluazioa

II. IEPk (2007-2010) finkatutako ingurumen plangintza bukatu da. Ondorioz, emaitzak balioesteko ordua da, hainbat galderari erantzunda:

Hartutako konpromisoak bete al dira? , Aurreikusitako helburuak lortu al dira?, Eta jarritako xedeak? , Atal honetan galdera horiei guztiei erantzungo diegu.

2007-2010 aldirako Ingurumen Esparru Programak bost xede zituen, hamaika helburu estrategikotan garatuta. Helburu estrategiko bakoitzarekin batera hainbat konpromiso zeuden, 44 guztira. Helburu estrategikoak lortu direla jotzen da hauei loturiko konpromisoak erdietsi badira.



Bost xede hauek dira: **ingurumen kalitatea; materialen kontsumoa eta hondakinen kudeaketa; bioaniztasuna babestea; lurralde oreka; eta klima aldaketa mugatzea.**

Epe luzerako helburu estrategiko horiekin batera, II. IEPk 44 konpromiso zehatz jasotzen ditu, epe laburrari eta ekintzak zehatzak burutzeari dagozkienak; jarraian, 2010erako bete diren ebaluatu dugu.

4.1.1 Ebaluazio globala helburu estrategikoen eta beharrezko baldintzen arabera

Airearen kalitateari buruzko 1. helburu estrategikoari dagokionez, joeraren eta konpromisoen betetze mailaren emaitza globala positiboa da, 2010ean aire kalitate ona edo onargarria egon baita egunen % 99an (joera positiboa 2007tik, orduan ehuneko % 94koa baitzen). Hala ere, kutsatzaileei; hain zuzen NO_x, SO₂ eta konposatu organiko lurunkorrei buruzko 4. konpromisoa ez da bete; izan ere, gutxiago isuri dira, baina 2010erako proposatutako helburura iritsi gabe.

4.1 Eraitzen ebaluazioa

2007-2010 IEP-REN EMAITZAK EBALUATZEKO TAULA SINTETIKOA	2007-2010eko helburu estrategikoaren joera globala	2010eko helburu estrategikoaren betetze mailaren balorazio globala
<p>1. HELBURU ESTRATEGIKOA. AIREAREN KALITATEA "Lurralde guztian airearen kalitatea hobetzea, herritarren osasunean eta bizi kalitatean duen eragina dela-eta. Arreta berezia emango zaio herriguneetan."</p>		
<p>2. HELBURU ESTRATEGIKOA. URAREN KALITATE ONA "EAEko Plangintza Hidrologikoan zehaztutako ur masek egoera ekologiko ona izatea eta ur horiek ez kaltetzea, pertsonen garapena eta bizi kalitatea zein ekosistemen egoera ona bultzatzeko."</p>		
<p>3. HELBURU ESTRATEGIKOA. LURZORUAREN KUTSADURA PREBENITZEA ETA KUTSATUTAKO GARBITZEA "Lurzorua bikain kudeatzea, kutsadura historikoaren lehentasunezko berreskurapenaren bidez eta beste kutsadura mota batzuk prebenitzea."</p>		
<p>4. HELBURU ESTRATEGIKOA. BALIABIDE NATURALEN KONTSUMO ARDURATSUA "Baliabide naturalen (ura, energia, materialak eta lurzorua) kontsumo arduratsua sustatzea eta, ikerketaren zein berrikuntzaren bidez, kontsumoaren eraginkortasun maila optimizatzea, lehia hobetzeko."</p>		
<p>5. helburu estrategikoa. ENERGIA KONTSUMO ETA EKOIZPEN JASANGARRIA SUSTATZEA "Kontsumoko sektore guztietan, energia aurrezteko, eraginkortasunez baliatzeko eta energia berriztagarriak erabiltzeko joera sustatzea."</p>		
<p>6. HELBURU ESTRATEGIKOA. HONDAKINAK MURRIZTEA ETA TRATATU GABEKO ZERO ISURI "Hondakin gutxiago sortzea eta horien kudeaketa hobetzea, tratatu gabeko hondakinen isurketa maila hutsera iritsi arte."</p>		
<p>7. HELBURU ESTRATEGIKOA. GURE ANIZTASUN BIOLOGIKOARI EUSTEA "Aniztasun biologikoaren galera geldiaraztea, lurreko eta itsasoko habitaten eta ekosistemen funtzionamendu jasangarria babestuta eta berreskuratuta."</p>		
<p>8. HELBURU ESTRATEGIKOA. MUGIKORTASUNA KUDEATZEKO EREDU BERRI BATERANTZ JOATEA "Pertsonen mugikortasun eskaerari oinez edo bizikletaz ibiltzeko eta garraio kolektiboa erabiltzeko neurriak sustatuta erantzutea. Merkantzien garraioan itsasoz eta trenbidez egindakoa sustatzea, errepede bidezkoa murrizteko."</p>		
<p>9. HELBURU ESTRATEGIKOA. LURRALDEAREN ERABILPEN OREKATUA LORTZEA "Lurraldean jarduten duten sektore ezberdinen plangintza bateratua eta koherentea egitea, lurraldearen artifizializazioaren eta zatiketaren arazoak konpontzeko."</p>		
<p>10. HELBURU ESTRATEGIKOA. BEROTEGI EFEKTUKO GAS ISURPENAK MUGATZEA "Berotegi efektuko gas isurpenak murriztea, karbono gutxiko ekonomiarantz bideratuta."</p>		
<p>11. HELBURU ESTRATEGIKOA. KLIMA ALDAKETARA EGOKITZEA "Klima aldaketara egokitze aurreikusitako eragin in urrakortasuna txikitze neurriak hartzea."</p>		

4.1 Eraitzen ebaluazioa

2007-2010 aldian **uraren kalitate onari buruzko 2. helburu estrategikoak** betetzeko joera ona izan badu ere, aurrerapenak ez dira nahikoak izan, eta loturiko konpromiso guztien betetzeari dagokionez ez da horrelako baloraziorik egon. Lurpeko urak egoki babestu edo hobetu dira, eta bainatzeko uren laginak hartzeko tokien % 95ean kalitate ona edo onargarria dago, dena den, aurrerapenak ez dira nahikoak izan lurrazaleko urak babestu, hobetu eta leheneratzeari dagokionez. Hondakin urei dagokionez, II. IEPn aurreikusitako saneamendu konpromisoa ere ez da bete.

Oro har, **lurzoruaren kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeari buruzko 3. helburu estrategikoa** lortzeko joera positiboa izan da 2007-2010 aldian, eta honi loturiko konpromiso ia guztiak ere bete dira: lurzoruaren kutsadurari aurrea hartzea, kutsatutako lurzoruak erabilera berrietarako berreskuratzea eta, zabor-tegi inaktiboak kontrolatu eta horien jarraipena egitea. Hala ere, erabilera berririk gabeko lurzoruak berreskuratze konpromisoa ez da bete, 35 hektareako helburua ez baita erdietsi.

Baliabide naturalen kontsumo arduratsuari buruzko 4. helburu estrategikoari dagokionez, azkeneko urteotan joera desberdinak egon dira. Horrela bada, kontabilizatu gabeko uraren hiri eskaria murriztu da, hornitutako biztanleen % 80an % 25era iritsita, baina uraren hornidura publikoaren eskari handia murrizteko konpromisoa ez da bete, edo eraginkortasun materiala 2001. urteko mailetan mantentzea ezinezkoa gertatu da.

Energia kontsumo eta ekoizpen jasangarria sustatzeari buruzko 5. helburu estrategikoa betetzeko joera globala 2007-2010 aldian positiboa izan bada ere, ez da aski izan loturiko konpromisoak lortzeko; hala, ez dira gauzatu energia aurrezkiarekin eta eraginkortasunarekin lotutako konpromisoak, ezta energia berriztagarriekin, kogenerazioarekin edo bioerregaiekin lotutakoak ere, eta hori izan daiteke II. IEPn finkatutako helburuak handinahiegiak zirelako.

Hondakinak murriztu eta tratatu gabeko zero isuriari buruzko 6. helburu estrategikoari dagokionez, bilakaera irregularra egon da azken urteotan, hortaz, konpromiso guztiak ezin ditugu lortuzat jo. Hala eta guztiz ere, arlo honetako konpromiso batzuk bete dira, hala nola hondakin arriskutsuen balioztapena edo hondakin ez arriskutsuak eta hiri hondakinak birziklatzea.

Gure aniztasun biologikoa eusteko 7. helburu estrategikoaz, berriz, ezin dugu esan helburu osoa beteta dagoenik. Hezeguneak leheneratzearekin, Natura 2000 Sarearekin edo nekazaritza ekologikoaren hedapenarekin lotutako konpromiso garrantzitsuak bete dira. Baina galzorian dauden faunako eta florako espezieen populazioen bilakaera erakusten duten indizeak ezin izan ditugu hobetu, ez dugu nekazaritza eta ingurumen neurriei heldutako azalera handitzea lortu nekazaritzako azalera erabilgarriaren % 10era irits dadin, eta ez dugu lortu baso autoktonoaren azalera 10.000 hektarea handitzea.

2007-2010 aldian egondako joera oso positiboa izan ez denez, **mugikortasuna kudeatzeko eredu berriari buruzko 8. helburu estrategikoa**ren betetze maila globala negatiboa da. Bidaiarien banaketa modala motorrik gabeko garraiorantz bideratzea ezinezkoa gertatu da, eta salgaien garraioa ere ez da trenerantz bideratu.

Lurraldearen erabilera orekatuari buruzko 9. helburu estrategikoa betetzeko ikusitako joera positiboa izan da 2007-2008 aldian, konpromiso guztiak bete direla kontsideratzeko aina: azpiegiturak eraikitzearen edo hirigintzaren ondorioz artifizializatutako hektarea kopurua urtetik urtera murriztu da.

Klima aldaketari dagokionez, **berotegi efektuko gasen isurpenak mugatzeari buruzko 10. helburu estrategikoa** bete da; izan ere, azkeneko urteotan joera positiboa egon da, eta ondorioz EAEko isurpenak 1990. urtekoak baino % 14 txikiagoak izan dira. Nabarmendu behar dugu, halere, 2009ko isurpenen beherakada nabarmen baldintzatu zuela, aurreko urtearen aldean, jarduera ekonomikoaren maila jaitsi izanak (urte horretan BPGa % 3,8 jaitsi zen).

Klima aldaketaren ildotik, baina **egokitzeari buruzko 11. helburu estrategikoa**ri dagokionez, hainbat aurrerapenak joera negatiboa saihestea lortu dute, baina hori ez da nahikoa izan helburu honen betetze globala lortzeko.

Jarraian, 2007-2010 aldirako II. Ingurumen Esparru Programaren mugarri nagusiak deskribatu ditugu Jasangarritasunerako Beharrezko Baldintzei dagokionez. Politika guztien koordinazioa ezinbestekoa da, eta azkeneko urteotan nabarmen egon dugu aurrera ingurumenaren aldagaia sektorekako politikan eta administrazio guztien artean txertatzeko.

4.1 Eraitzen ebaluazioa

Alderdi horri dagokionez (**ingurumen aldagaia beste politika batzuetan txertatzeko 1. beharrezko baldintza**), tokiko politiketan ingurumen kontsiderazioak txertatu izana nabarmentzen da; beraz Udalsarea 21 (Jasangarritasunerako Euskal Udalerrien Sarea) plataformaren bidez egin da. Halaber, Klima Aldaketaren Euskal Bulegoa sortu eta abiarazi dugu arlo honetako politikak koordinatzeko sailen arteko organo gisa, eta administrazioak lagundu ditugu erosketak eta kontratazio publiko berdea ezar ditzaten.

Indarreko araudia eta bere aplikazioa hobetzeko 2. beharrezko baldintza, administrazio prozesua sinplifikatzea eta arintzea Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak landutako alderdietako bat izan da. Aldi honetan hainbat araudi garatu dira, hala nola: Ingurumena Babesteko 3/98 Legea aldatzea, Klima Aldaketaren Legearen aurreproiektua eta Eraikuntzako eta Eraispenerako Hondakinen Dekretua egitea, besteak beste.

Merkatua ingurumenaren alde erabiltzeko 3. beharrezko baldintzari dagokionez, aipatu behar dugu aurrerapenak egon direla enpresei ingurumena kudeatzeko sistemak ezartzeko emandako laguntzan, ekodiseinu arloko jarduketetan eta erosketak eta kontratazio publiko berdearekin lotuta hornitzaileei emandako bultzadan.

Herritarrak gaitzeko eta arduradun egiteko 4. beharrezko baldintzari buruz, berriz, Tokiko Agenda 21en eta Eskolako Agenda 21en esparruan garatutako herritarren parte hartze eta sentsibilizaziorako prozesuak indartu egin dira aldi honetan. Zabalpen eta sentsibilizazio arloko beste mugari esanguratsu bat Euskadiko Bioaniztasun Zentroa, Madariaga dorretxea izan da, baita Natura 2000 Sarea ezagutarazteko erakusketa ibiltaria ere.


Ingurumen ikerketari, garapenari eta berrikuntzari buruzko 5. beharrezko baldintzan, berriz, nabarmendu behar dugu K-Egokitzen klima aldaketara egokitzen ikertzeko proiektua garatu dugula Etorrek programaren barruan. Halaber, Euskadiko Klima Aldaketaren lehen Ezagutza Mapa egin izana ere azpimarratu behar dugu.

Azkenik, **nazioarteko ingurumen lankidetzako 6. beharrezko baldintzari** dagokionez, Common Forum on Contaminated Land deritzon parte hartu dugu kutsatutako lurzoruen alorrean. Eta nazioarteko lankidetzak garatu dugu "European Nature Conservation Agencies ENCA" sarean, bioaniztasunari dagokionez; halaber, Eusko Jaurlaritzak Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenaren Aldeen Konferentzietan ere parte hartu du.


4.1 Eraitzen ebaluazioa

4.1.2 Konpromisoen araberako ebaluazio globala

Konpromisoen betetze mailaren gainean balantze global hau egin dezakegu: 20 konpromiso (% 45) lortu dira edo 2010ean lortzea aurreikusten da; 5 konpromisotan (% 11) aurrerapenak ez dira nahikoak; 16 konpromiso (% 36) ez dira bete. 3 konpromisori (% 7) buruz ez dugu datu nahikorik edo garrantzitsurik betetze maila zehaztasunez ebaluatu ahal izateko.



Adierazleek 2007-2010 aldian izandako ingurumen joerari dagokionez, bilakaera positiboa dago konpromisoen % 59tan, joera gurutzatua dago % 34tan, eta joera negatiboa % 2tan. Konpromisoen gainerako % 2tan ez dago daturik beren joera egoki balioesteko.



4.2 Ingurumen Esparru Programa berriaren helburu estrategikoak

III. IEPk 2020rako ikuspegi berria du, baita 6 helburu estrategiko argi eta zehatz, 17 helburu operatibo eta 57 jardun ildo ere; eta aipatutako helburuei neurri zehatzak lotuta daude.

Ikuspegi estrategikoa:

“Herritarren oraingo eta etorkizuneko bizi kalitatea zaintzea; horretarako, klima aldaketaren aurka borrokatzea, bioaniztasuna eta sistema ekologikoen funtzionaltasuna babestea, sortutako hondakinak egoki kudeatzea, ingurune garbi eta osasungarria bermatzea, eta baliabide naturalen kontsumo arduratsua sustatzea.”

III. IEPren helburu estrategikoak:

1. Berotegi efektuko gas isurketak arintzea eta klima aldaketaren ondorioak minimizatzea EAEn.
2. Aniztasun biologikoaren galera etetea, ekosistemak leheneratzea eta lurzoruaren artifizializazioa mugatzea.
3. Baliabideen erabilera eraginkorra eta kontsumo arduratsua sustatzea.
4. Ingurune garbi eta osasungarria bermatzea.
5. Sailen eta erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak bultzatzea, arau proiektuetan eta politika publikoetan ingurumen aldagaia txertatzea bultzatuta.
6. Intereseko eragile ekonomikoak, zientifiko-teknologikoak eta sozialak erantzule egitea, merkatua ingurumenaren alde erabilia eta informazioa zein prestakuntza hobetuta.

2011-2014 Ingurumen Esparru Programaren dokumentazio osoa web helbide honetan jasota dago:
<http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net>



1. ERANSKINA: KONTSULTATUTAKO INFORMAZIO ITURRIAK

1. ERANSKINA: KONTSULTATUTAKO INFORMAZIO ITURRIAK

Datuak eskuratzeko eta adierazleak osatzeko, gehienbat, informazio iturri hauek kontsultatu ditugu²⁰ :

- Eusko Jaurlaritza: www.euskadi.net
- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saila: www.ingurumena.ejgv.euskadi.net
- Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Garraio eta Herri Lan Saila: www.garraioak.ejgv.euskadi.net
- Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoa, Ihobe: www.ihobe.net
- Energiaren Euskal Erakundea: <http://www.eve.es/web/Portada.aspx?lang=eu-ES>
- Uraren Euskal Agentzia: www.uragentzia.net
- Euskadiko Biodibertsitatearen Zentroa, Madariaga dorretxea: www.torremadariaga.net
- Jasangarritasunerako Udalerrien Euskal Sarea, Udalsarea 21: www.udalsarea21.net
- Euskal Estatistika Erakundea (Eustat): www.eustat.es
- Espainiako Gobernuaren Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioa: www.marm.es
- Jasangarritasunaren Espainiako Behatokia: www.sostenibilidad-es.org
- Espainiako Estatistika Erakundea, INE: www.ine.es
- Europako Ingurumen Agentzia: www.eea.europa.eu
- Europako Estatistika Erakundea, Eurostat: epp.eurostat.ec.europa.eu

²⁰ Erreferentzia horiek lagungarriak izango zaizkio interesa duen orori, txosten honetan aztergai dugun eremu bakoitzaren inguruan garatuagoak eta osatuagoak dauden informazioa eta interpretazioak kontsultatzeko, eta horrela hemen azaldutakoaz haratago irizpide propioa osatzeko.



EAE-KO INGURUMEN PROFILA 2010



Herri-baltzua
Sociedad Pública del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE
PLANGINTZA, NEKAZARITZA
ETA ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACION TERRITORIAL,
AGRICULTURA Y PESCA